

NAZIOARTEKO HARREMANAK

Maddi Galdos Areta

2017-2018

AURKIBIDEA:

Sarrera:

1. Nazioarteko Harremanetako diziplinaren sorburua, aztergaiak eta ezaugarriak
2. Nazioarteko gizartearen eboluzio historikoa
3. Nazioarteko sistema lanabes analitiko gisa: aktoreak, estruktura eta prozesuak

Teoria:

4. Nazioarteko Harremanen Korrante Teorikoak

Aktoreak:

5. Aktore kontzeptuaren definizioa eta eboluzioa, Nazioarteko aktoreen tipologia
6. Estatua
7. Nazioarteko Gobernu Erakundeak, Nazio Batuen kasua
8. Gobernu aktore ez zentralak
9. Aktore Transnazionalak
 - 9.1. Aktore Transnazionalak: Gobernuz Kanpoko Erakundeak
 - 9.2. Aktore Transnazionalak: Gizarte Mugimendu Transnazionalak
 - 9.3. Aktore Transnazionalak: Enpresa Transnazionalak

Nazioarteko gizartearen oinarrizko prozesuak:

10. Gatazkak eta gerrak
11. Lankidetzak

NAZIOARTEKO HARREMANAK

Iratxe Perea

iratxe.perea@ehu.eus

SARRERA

1.gaia:

NAZIOARTEKO HARREMANETAKO DIZIPLINAREN SORBURUA, AZTERGAIK ETA EZAUGARRIAK

1. NAZIOARTEKO HARREMANEN KONTZEPZIO BIKOITZA

Nazioarteko Harremanak

Nazioarteko Harremanen kontzeptua bi erataraz definitu daitezke:

1)

Zientzia edo diziplina zientifiko eta akademikoa da, *nazioarteko gizartea jorratzen duen zientzia*.

2)

Errealitate sozialaren eta horrekin lotutako arazoaren atala.

- Nazioarteko gizartea osatzen duen harreman sozialen multzoa
- Harreman horiek politikoak edo ez-politikoak izan daitezke; hala nola, ekonomikoak, kulturalak, humanitarioak eta erlijiozkoak
- Harreman horiek Estatuaren artekoak zein nazioarteko gizartearen besteko aktoreen artean gauzatzen direnak izan daitezke, baita aktore horien eta Estatuaren artekoak ere

Nazioarteko Harremanak eta beste kontzeptu batzuk: Ez dira ikasi behar.

- *Nazioarteko Politika:* estatuaren arteko harremanak (diplomazia, gerra). Nazioarteko Harremanetako diziplinaren arloetako bat litzateke.
- *Kanpo Politika:* estatu/gobernu baten politika beste estatu baten/batzuen gain.
- *Nazioarteko harremanak:* harreman politikoak baino anitzagoak dira; hala nola, ekonomikoak, kulturalak ...

Horrela, bada, *Nazioarteko Harremanen* diziplinak estatuaz haratago gauzatzen diren interakzioak ikasten ditu.

2. AZTERGAIA: NAZIOARTEKO GIZARTEA

Zer ikertzen da?

Oro har, '*nazioartekoa*' da ikergeia:

- Estatuaren arteko harremanak
- Estatuaren artekoak ez direnak, hau da, harreman 'transnazionalak'
- Sistemaren funtzionamendua; hots, aktoreak, estruktura eta prozesuak (gatazka eta gerra / lankidetzak eta integrazioa)

Zehaztuz, *Nazioarteko Gizartea* (gizateriaren gizartea):

- *Unibertsala edo planetarioa* (mundu osoa barne hartzen du)
- *Konplexua edo heterogeneoa* (arloan politikoan, kulturean, ekonomikoan ...)
Izan ere, nazioarteko gizarteko herrialde guztiek ezaugarri ezberdinak dituzte gizarte berean dauden arren.
- *Interdependentea eta globala* (arazoek izaera unibertsala hartu dute: bakea eta gerra, demografia, ingurumena ...)
- *Anarkikoa eta ordenatua* (ez dago agintari zentralik, baina ordena bat dago). Honakoa oso garrantzitsua da ikuspegi teorikoan.
- *Aktore anitzak* (Estatuak, nazioarteko erakundeak, gizarte-mugimenduak ...)
- *Harreman anitzak* (politikoak, ekonomikoak, teknologikoak ...)
- *Prozesu anitzak* (lankidetzak, gatazka ...)

Nazioarteko Gizartea eta beste kontzeptu batzuk: Ez dira ikasi behar.

- *Nazioarteko gizartea:* gizarte aktoreen artean harreman sendo eta iraunkorrak daude, arauetan, erakundeetan eta baloreetan oinarritutakoak.
- *Nazioarteko komunitatea:* gizartea baino gehiago; nortasun, kultura eta balore komunak eskatzen ditu.
- *Nazioarteko sistema:* nazioarteko gizartea aztertzeko lanabes analitikoa (aktoreak + estruktura + prozesuak)
- *Nazioarteko ordena:* estatu-sistemaren ordena, subiranotasun printzipioan oinarrituta **vs.** mundu-ordena, giza-eskubideen errespetuan edo justizian oinarrituta.

3. AURREKARIAK ETA GENESI AKADEMIKOA

Nazioarteko gizartearen inguruko zientziak		
Jendeen Zuzenbidea (XVI-XVII)	→ Nazioarteko Zuzenbidea (XVIII)	
Itunen Historia (XVI)	→ Historia Diplomatikoa (XVIII-XIX)	→ Nazioarteko Harremanen Historia (XX)
Diplomazia (XVIII)		
Nazioarteko Harremanak (XX)		
↓ 1648: Westfaliako Bakea (Estatu subiranoaren printzipioa)		

4. NAZIOARTEKO HARREMANAK ZIENTZIAREN JAIOTZA

XX. mendearen hasieran, **lehen obrak eta zentro espezializatuak** sortu ziren; gaur egun oraindik protagonismoa mantentzen dutenak.

- 1910: *Carnegie Endowment for International Peace* (New York)
- 1910: *World Peace Foundation* (Boston)

Instituzionalizazio akademikoa:

- 1919: NH lehen katedra '*Woodrow Wilson*' izenarekin. Galesko Unibertsitatean sortu zen (Aberystwyth) eta Alfred Zimmern historialaria izan zen lehen katedraduna.

NH ikerketaren zentro nagusiak:

- 1919: London, The Royal Institute of International Affairs (*International Affairs* aldizkaria)
- 1919: New York, Council on Foreign Relations (*Foreign Affairs* aldizkaria)
- 1927: Geneva, Institute Universitaire de Hautes Études Internationales (*Relations Internationales* aldizkaria)

NH eboluzio teorikoa

1930ean, diziplina anitzeko zientzia osatuko da; planteamendu teoriko anitzak eta eztabaida, eskola, paradigmatik ... bilduko dituena.

- * Zientzia bera I. Mundu Gerran zehar hedatuko da

2.gaia:

NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EBOLUZIO HISTORIKOA

SARRERA



Aurretiko gogoeta egingo dugu *Eric Hobsbawm* historialaren lana baliatuz. Honek periodizazio berezi bat egiten du:

- “XIX.mende luzea” (1789-1914): Europak rol zentrala zeukan nazioarteko harremanetan, bereziki BHK.
- “XX.mende laburra” (1914-1991): Europar zentralitatearen amaiera (BH ↓) eta Gerra Hotza. Garai honetan hainbat gertaera historiko garrantzitsu izan dira:
 - IMG (1914-1919): baita Errusiar Iraultza (1917) eta Estatu Batuen esku-hartze eta hegemonia.
 - IIMG (1939-1945): Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren nagusitasuna; faxismoaren porrota.
 - Gerra Hotza: bipolaritatea
- 1991tik aurrera munduan ordena berria nagusituko da. Une honetan finkatu egingo da AEBren hegemonia (SESB erortzearekin).

1. ESTATU-SISTEMAREN HEDAPENA

Estatu-sistema 1648an abiarazi zen, Westfaliako estatua finkatzearekin batera. Gerora, Europatik mundu mailara hedatu zen, fase ezberdinetan:

- Kolonizazioa eta inperialismoa (XV.amaiera-XX.hasiera)
 - Europar inperioen arteko lehia politiko eta ekonomikoa
 - Sistema sozioekonomiko kapitalistaren hedapena mundu-mailan
 - Westfaliar Estatuaren sistema politikoa nagusitzen da: estatu subiranoaren kontzeptua
- Deskolonizazioa (IIMG ostean Afrika eta Asian)
 - Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren erregimenean (1970)
 - Nazio Batuen partaidetza zabaltzen da, 51 estatutatik (1945) 132 estatutara (1971)
- Sobietan Batasunaren desagertzea (1991tik aurrera Europan)
 - Tsarren Errusiako muga inperialak (SESBak mantendu zituenak) desagertu eta 15 estatu independente azaldu ziren.



Estatu independente guzti horiek estatu-nazioaren sisteman sartzen dira, Nazioarteko Zuzenbidearen baitan. Horrela, bada, estatuen sistema globala sortzen da, bi zutabetan oinarritutakoa:

- Estatu subiranoaren printzipioa

la kolonia guztiak desagertuta.

- Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren funtsezko printzipioa

Nazioarteko Zuzenbidearen Printzipioen Inguruko Ebazpena, herrien artean lankidetzaharremanak zehazten dituen, 2625 (XXV), 1970ko urriaren 24an sinatutakoa, Nazio Batuen (ONU) Batzar Nagusian.

- Indarraren mehatxua edo baliatzea debekatu
- Eztabaiden konponbide baketsua
- Gainontzeko estatuen barne-arazoetan sartzeko debekua: salbuespenak egon daitezke Sirian (zibilak arriskuan), Irak-en (prebentiboa).
- Estatuen artean lankidetzan aritzeko betebeharra
- Herrien autodeterminazio-eskubidea: testuinguruagatik kolonia izandako eremuei soilik onartu zitzaaien hau.
- Estatuen arteko berdintasun subiranoa
- Estatuak uste onez beteko dituzte nazioarteko betebeharrak

2. II. MUNDU GERRAREN OSTEKO MUNDU ORDENA. GERRA HOTZA (1945-1991)

II Mundu Gerra (1939-1945)

Bandoak:

- Ardatzeko Potentziak
Vs.
- Aliatuak

Ideologiak eta sistemak: Faxismoa, Kapitalismoa eta Sozialismoa

Amaiera:

- Yaltako Konferentzia (1945) → irudian Churchil, Roosevelt eta Stalin.
- Postdameko Konferentzia (1945)

NAZIOARTEKO INSTITUZIO ORDENA

Gaur egun mantentzen den instituzio-sistema eratu zen:

- Bretton Woods, 1944: Nazioarteko Diru Funtza (NDF), Banku Mundiala (BM) eta ondoren Muga-Zergei eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Orokorra (GATT) edo Munduko Merkataritza Erakundea (MME) sortu ziren. Ordena ekonomikoari begira.
- Nazio Batuen Erakundea (NBE), 1945: San Franziskoko konferentzia. Bertan Nazio Batuen Gutuna sinatzen da, Estatuen arteko lankidetzaren harremanak bermatzeko. Segurtasun Kontseiluak 5 kide izango dira, zeinak beto eskubidea izango duten; Errusia, AEB, Txina, Frantzia eta BH.

DESKOLONIZAZIOA (1946-1990)

Hirugarren Munduaren agerpena, nazioarteko agertokian.

- 1945ean, kolonialismoaren aurka kokatu zen NBE eta 1960an Herrien autodeterminazio-eskubidea definitu zuen: NBEren Batzar Nagusian, 1514 (XV) ebazpenean.

Honetan, eragin nabarmena izan zuen **Gerra Hotzak eta orduko polarizazioak**:

AEB eta SESB “kolonialismoaren aurka” zeuden arren, beraien “inperialismo berriak” hedatu nahi zituzten. Horretarako, estrategia ezberdinak baliatuz:

- AEBk bere sorrera kolonialari egin zion erreferentzia. Horrela, herrialde postkolonial “aske” horien eredutzat jo nahi izan zuen bere burua; horrela, lotura berriak sortuaz.
 - SESBko komunismoa inperialismo klasikoaren kontra kokatu zen. Ordea, borroka antinperialista hori sustatuta, herrialdeak erakarri nahi izan zituen.
- Horren guztiaren ondorioz, askapen nazionaleko erakundeen jarduera armatua eman zen Latinoamerika, Asian eta Afrikan. Gerrillen bidez.

Hirugarren bide baten sorrera: Bandung eta Lerrokatu Gabeko Herrialdeak

Deskolonizazio prozesuak ez ziren independentzia oso batetan amaitze. Izan ere, eta lehen aipatu bezala, Gerra Hotzaren testuinguruan independentzia lortu nahi zuten herrialdeek SESB edo AEBen laguntzaz egin behar izan zuten.

Horrela, eta batezere, ikuspegi panasiatiko edo panafrikanoaren baitan, herrialde postkolonial garrantzitsuenetako batzuetan hirugarren bide baten sorrera bultzatu zen: hots, AEB eta SESBren eraginpetik at mantenduko zena.

- *Bandung-eko Batzarra* (1955, Indonesia): Asia eta Afrikako 29 estatu independente berri batu ziren bertan (Sukarno, Indonesia; Nehru, India, eta Nasser, Egipto aipagarrienak). Honakoan ziren beraien helburu nagusiak:
 - Elkarkidetzaren Afrosiatikoa sustatzea: kultura eta ekonomian bereziki
 - Metropoli ohien eta AEBn neokolonialismotik babestea
 - SESBren mendekotasun politikotik babestea

Prozesu honekin sortu zen gaur egun “hirugarren mundu” izenez ezagutzen duguna. Horrela:

- Lehen mundua; kapitalismoa eta AEB
- Bigarren mundua; komunismoa eta SESB
- Hirugarrena; panasiatiko eta panafrikarrak

- Bandung-eko Batzarraren ondorioz, Belgradoko Konferentzian (1961), *Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua* sortu zen (LGHM, Non Aligned Movement, NAM) sortzen da. Honek koexistentzia baketsuaren printzipioak bultzatu zituen.
 - o Mugimendu honetan lehen aipatutakoez gain, Titoren Yugoslavia eta Kuba ere sartu ziren (ez zegoen Varsoviako itunaren baitan).
- Era berean, Banku Mundialaren diseinuarekin bat egiten ez zutenek, Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria aldarrikatu zuten.

Bandug-en garapena:

Mugimenduak ez zuen lortu AEBk eta SESBk adina botere politiko eta ekonomiko izatea.

- Esan genezake mugimendu honek konfiantza handia jarria zuela Nazio Batuen Erakundearen (ONU). Ordea, beren pisua txikia izan zen, eta ahulezia eta erabaki garrantzitsuetan laguntza internazionala eskuratzeko ezintasuna agetu zituen.

Horrela, iparralde eta hegoaldearen arteko desoreka areagotu egin ziren; dinamika ezberdinak:

- Garapen Asiatikoa; Txina, India, Korea, Thaiandia
- Afrikaren menpekotasun eta pobrezia

Ordea, berez saiakera polita izan zen arren, ez dago arrakasta handirik.

GERRA HOTZA (1947-1991)

Gerra Hotzaz mintzo garenean Estatu Batuak eta Sobietar Batasuen arteko lehiakortasunaz mintzo gara. Lehiakortasun honek bide asko izan zituen; ordea, bi potentzia hauek elkarren artean sekula ez borrokatze lortu zuten. Izan ere, hain ziren indartsu, ezen hauen arteko konfrontazioak ondorio oso lazarriak eragingo bailituzkeen munduan. Horrela, eremu ugarian burutu ziren borroka txikian, bi blokeek lur gehiago kontrolatzeko helburuz.

Ezaugarriak

IIMGren ostean, munduko bi 'superpotentzien gatazka hasten da: gerra osteko nolabaiteko mundu askea kontrolatzeko helburuz. Europa (hankaz gora agertu zena) eta Asia zituzten helburutzat, hasieran bederen.

- Hots, gerrarako eszenatokia hasieran Europa zen arren, Asia eta Ekialde Hurbilean ere (Deskolonizazioaren ostean) eman ziren gatazkak. Bi superpotentzia horiek gogor ahalegindu baitziren herrialde berri horiei hurbiltzen.

- Une hoetan hainbat herrialde hirugarren bide bat sortzen ahalegindu ziren. Horrela, saiatu ziren munduan AEB edo SESBtik at antolatzen.
- Izan ere, IIMGren ostean, mugak zeharo aldatuta geratu ziren.

Bi hauek gerra zuzen bat saihestu zuten.

- Norgehiagoka ideologiko eta kulturala gertatu eta sustatu zen.
- Mundua bi zatitan banandu zen, kapitalismo eta komunismoaren eraginaren arabera
- Bi superpotentziek hien herrialde aliatuen barneko politiketan parte hartu zuten

Mesfidantza eta **bi sistema espantsionisten arteko lehia** nagusitu ziren.

- o **AEB**

AEBk komunismoaren hedapena mehatxu bezala ikusten du. Izan ere, IIMGren osteko krisi testuinguruaren ondorioz, alderdi sozialistak indartzen hasi ziren Europan.

- Grezia: iraultza komunista (1946-1949)
- Turkia: base militarrek
- Txina: Mao Tse Tung (1949an gobernura)
- Vietnam: Ho Chi Minh (Ipar Vietnamgo gobernuan, 1945ean)
- Alderdi Komunistak Europan.

Horri buelta ematearren, AEBk bi plan garatu zituen:

- **Truman Doktrina** (1947): mehatxu komunista zuten lurraldeei laguntza eskaintzen zitzaien (hura geldiarazteko). Truman zen garai hartan AEBko presidentea; ozeano bareko operazioa gidatu zuen militarra eta maiz Rooseveltten aktibitate eza kritikatu zuena.
- **Marshall Plana** (1947): Europa berreraikitzeko programa izan zen, mailegu bidez IIMGren osteko suntsipena gainditzearen. Hots, AEBk berehala ulertu zuen diru bidez aliatuak lortu ahal izango zituela, eta, horrela, aliatuen Europa berreraikitzeari ekin zioten.

Laguntza horiek mendebaldeko Europara soilik heldu ziren eta horrekin Europa hori berreraikitzeaz gain, eragin komunista geratzea izan zuten helburu. Honakoak ziren finkatutako baldintzak:

- o Kapitalismoaren finkapena
- o Dolarra dibisa internazional gisa hartzea

- **SESB**

Mendebaldeko kapitalismo eta inperialismoa mehatxu lez ikusten zuten. Horrela, bizirauteko, SESB hedatu eta mundu-mailako sozialismoa bultzatzea zuten xede.

- Kominform: Alderdi Komunisten Informazio Bulegoa sortu zen, sistema sobietarra Europa zentral eta ekialdean hedatzeko. Horrela, 15 errepublikaz osatuta zegoen SESB.
 - Bulgaria (1946)
 - Polonia (1947)
 - Errumania (1947)
 - Txekoslovakia (1948)
 - Hungria (1949)
 - Alemaniako Errepublika Demokratikoa (1949)
 - Albania eta Yugoslavia
- COMECON: Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (1949)

Hau Europar Batasunaren gisako bat zen, esfera sobietarrean garatu zena (Ekialdeko Europan). SESBen laguntza ekonomikoa jasoko zuten bertakoek, honako baldintzekin:

- Sobietar batasunaren zuzendaritza politiko eta ekonomikoa onartzea.
- Neurri oso sakonak.

- **AEBren estrategia:**

Eragin politikoa izan zuen mundu-mailan; horretarako, demokrazia eta askatasunaren diskurtsoa baliatuz (Truman Doktrina).

Nagusitasun ekonomikoa zuen: Bretton Woods, dolarra eta Marshall plana.

Nagusitasun militarra zuen: bonba atomikoa, ikerketa militarra

Aliantza ezberdinak lurraldea kontrolatzeko: base militarrek jartzeko, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (NATO, 1949)

Nazio Batuen kontrola.

- **SESBen estrategia:**

Eragin politikoa mundu-mailan lortu nahi zuen: lorpen sozialei egin zien erreferentzia. IIMGko testuinguruaren eta garaipenaren ostean, diskurtso hori nahikoa hedatu zen. Mundu mailako sistema sozialista aldarrikatu zuten.

Garapen ekonomikoa: baliabide natural asko, herrialde handia ...

Arlo militarrean aurreratzea: ikerketa militarra, 1. ikerketa atomikoa (1949)

Aliantzak ezarri zituzten: COMECON, 3. munduko herrialdeekin (Kuba, Vietnam, Nikaragua), Varsoviako Ituna (1955).

Nazio Batuetan eragina.

Bipolaritatearen ondorioak:

Gerra Hotzean sortu zen botere banaketaren ondorioz, bipolaritatea sortu zela esan genezake. Estructura bipolar hori heterogeneoa (balore politiko ezberdinak) zen, eta ondorio ugari izan zituen:

- Bi superpotentzien Nazioarteko Gizartea: AEB vs. SESB
- Blokeen dinamika: ekialde (komunista, sozialista) eta mendebaldearen (kapitalista) arteko gatazka
- Europa banatuta (Alemaniatik), altzairuzko gortinarekin.
 - Alemania AEF eta Alemania AED

Europako "altzairuzko ohiala"



- Aliantza edo blokeen arteko tentsioa: NATO – Varsoviako Ituna
- Armamentu norgehiagoka
- Gatazka eta gerra anitzak sortzen dira: barne faktoreak + kanpo faktoreak (Gerra Hotza)
- Azken ondorioa (beti atzean): gerra nuklearraren arriskua

Gerra Hotzean zehar, ordea, tentsio maila ez zen beti mantendu. Hots, tentsio-distentsio faseak izan ziren. Horrela, akordioak sinatu ziren distentsio faseetan.

- Aipagarria dira arma nuklearrak mugatzeko sinatu ziren itunak.
- Arma Nuklearrak Ez Ugaltzeko Ituna (NPT, 1968). Potentzia nuklear guztiek sinatu zuten hau. Hemen adosten zenaren arabera, soilik 5 hauei onartzen zitzaizkien erretserba nuklearrak izatea.
 - AEB
 - Erresuma Batua
 - Errusia (SESB)
 - Frantzia
 - Txina

Aipagarria da gaur egun, itunetik aparte, beste batzuek ere badituztela arma nuklearrak:

- Israel
- India
- Pakistan
- Ipar Korea
- Iran (?)

TRANTSIZIOA (1989-1991):

1989:

- Berlingo harresiaren erorketa
- Bush eta Gorvachovek "gerra hotzaren amaiera" iragartzen dute

1991:

- NATOren doktrina berria: lankidetzaren bultzatzen da
- Varsoviako Ituna desagitzen da

- GERRA HOTZAREN OSTEKO ORDENA BERRIA

Nazioarteko ordena historikoak: → Nazioarteko Harremanetan zehaztu diren ordena historikoak

- Westfaliako Ituna (1648): estatu nazioa
- Vienako Kongresua (1815): monarkiaren ordenaren berreskurapena
- Versalleseko Ituna (1919): IMG ostean
- Yalta (1945-47) eta Postdam (1989-91): SESB desintegrazioaren ostean

XX. mendearen amaieran Gerra Hotzaren fase historikoa eta nazioarteko *sistema bipolarra* bukatzen da.

Historiaren amaiera? (Francis Fukuyama, 1992)

- Superpotentzia bat (SESB) eta bloke bat (Varsoviako Ituna) desagertu
- Superpotentzia batek (AEB) eta bloke batek (NATO) iraun

Estruktura bipolarren amaiera

→

estruktura polobakarra

Estruktura polobakarra:

- Superpotentzia bat (AEB)
- Botere 'azpi zentroak' (Errusia, Erresuma Batua, Txina,...)
- Bi haustura: ekialdea-mendebaldea (desagertu) eta zentro-periferia (jarraitu)

1990an nazioarteko mundu ordena berria zabalitzen da (bakea, justizia, arazo konpontzea ...), baina errealitatea oso ezberdina da.

- Gatazkak (Golko gerra, Jugoslavia, Kaukaso, Ruandako genozidioa ...)
- Arazo globalak (mota ezberdinetako biolentziak, azpigarapena, ezberdintasun sozialak, ingurumena, armamentua ...)

Nazioarteko Harremanen berrikustea (80 eta 90. hamarkadetan zehar)

Mundu Ordena Berria

- Bloke baten desagerpenaren ondorioz:
 - o Interdependentzia eta globalizazioa areagotzen dira.
 - o Gerra nuklearraren arrisku txikiagoa, baina armagabetzearen hazkundera jarraitzen du.
- Sistema aldakorragoa: ez da hain hierarkikoa edo zurruna; konplexuagoa, nahasia, kontraesankorra, ziurgabetasun gehiago.
- Botere-banaketa arloaren arabera: eztabaidagarria da hein batean.

Arlo militarra

AEBren polobakartasuna:

- Gastu militarrek, baseak, teknologia
- Potentzia militar global bakarra
- NATOren hedapena eta birmoldaketa

AEBren unilateralismoa gero eta nabariagoa indarkeriazko gatazketan:

- *Golkoko Gerra* (1991): NBEren bidez.
- *Bosniako Gerra*: Europaren ahulezia aurrean, bakea inposatu (Daytoneko akordioak, 1995)
- *Kosovoko Gerra* (1999): garbiketa etnikoa, NATOk Serbia bonbardatu (Skaren baimenik gabe).
- *Afganistanen esku hartzea* (2002): Bin Laden/talibanak (NATOren 5. Artikulua)
- *Irakeko Inbasioa* (2003): suntsipen handiko armak (WMD); interes propioak (SKare baimenik gabe).

Arlo politikoa

AEB: bere interesak eta hegemonia defendatzeko bi bide:

- SK, NZP eta aliatuen bidez
- Beharrezkoa bada, SK, NZP eta aliatuen gainetik: esku-hartzeak, NATO erabili NZPtik kanpo, Itunak sinatu gabe (Kyoto)

“Unilateralismorako joera”

‘9/11’ aitzakia (11S)

- ‘Nazioarteko terrorismoaren aurkako gerra’
 - Erantzun militarra, ofentsiboa eta globala
- ‘Segurtasun Nazioalaren Estrategia’
 - Mehatxu berriak, tresna berriak
 - Eraso prebentiboak, Sketik eta NZPtik kanpo

Europar Batasuna:

- Kanpo eta Segurtasunerako Politika Komuna (PESC) ahula. Ez du ahots bakarra
- Frantziak eta Alemaniak eragin handia EBean (Britainia handiak ez hainbeste)

Errusia:

- Krisaldian egon ostean (politikoki, ekonomikoaki, militarki), azken urteotan, susperraldia
- Bonba nuklearra

Txina:

- Potentzia eskualdean; arazo globaletan sartu baliabideen beharra duela medio

Arlo ekonomikoa

AEBk pisu handia:

Finantza arloan, dolarren hegemonia, pisu handi nazioarteko finantza-instituzioetan, lidergo teknologikoa ...

Hiru aktore ekonomiko nagusiak:

- AEB
- Europar batasuna (Alemania)
- Txina

- GLOBALIZAZIOA

Noiz sortu zen globalizazioa? Arlo akademiko eta politikoan 80.hamarkadan hasi zen ikertzen. Hitzaz, beraz, oso berria da.

Errealitate sozialean, prozesua bera ere, 80.hamarkada inguruan hasi zen. Horren aurretik, merkataritza eta ekonomian hasia zen dagoeneko globalizazioa (industrializazioarekin batera interdependentzia hasi zen). Ordea, 80.hamarkadari egiten diogu erreferentzia, garai hartan hedatu baitzen globalizazioa arlo guztietara (nazioarteko erakundeek ere eragina izan zuten honetan aurretik). Aurrerapen teknologikoen bidez, esan bezala, 80. Hamarkadan globalizazioa arlo guztietara gauzatu zen.

Globalizazioaren ezaugarrietako bat berehalakotasuna da. Aurrerapen teknologikoek ahalbidetu dute komunikazioa berehalakoa izan dadin, hots, harremanak berehalakoak dira. Gainera, hiritarrok garai hartan jabetu ginen interdependentzia horren existentziak.

Definizioak:

“Gizarte harreman globalen areagotzea, zeinak urrun dauden lekuak elkartzen dituen, tokiko gertaerak handik aparte gertatzen diren kontuek eragiteko moduan”. (GIDDENS)

Adibidetzat ditugu 2008ko krisia eta horri erantzuna emateko modua.

“Urratsez urrats gauzatzen den prozesua, non denak (filmaren industria, landareen ekoizpena, gorputz polizialak, bankuak, zaintza lana, goi mailako hezkuntza, norbanako nortasunaren zentzua, giza eskubideak, ingurumen aktibismoa, edo emakumeen mugimendu bat) interdependentzia eta koordinazio gehiago hartzen du muga nazionalen zehar”. (ENLOE)

Globalizazioaren aurrekariak:

- 1) Kolonizazioa (Mundializazioa – XV.mendean): erlijioen hedapenari egiten zaio erreferentzia honi baino lehen, V-VI mende bitartean. Hori mundializazio prozesuarekin erlazionatzen da.
- 2) Kapitalismoaren garapen historikoa: Europan (bereziki BH) zabaldu zen, orduan hasi baitziren lehen harreman kapitalistak XV.mende inguruan.
- 3) Interdependentzia (IIMG ostean): bai ekonomiko eta bai politikoak bereziki. Izan ere, nazioarteko erakundeak ugaritzen hasi ziren garai hartan (nahiz eta XIX.mendean sortzen hasi ziren). Gainera, maila politikoan ONU sortu zen (batzar nagusia ...) eta ekonomikoan Bertol Woods (Banku Mundiala, Nazioarteko Diru Funtsa eta Merkataritza Mundu Erakundea).

- 4) Globalizazioa (80ko hamarkadatik aurrera arlo guztietara hedatzen da). Eremu guztietara hedatzen da: arlo sozialean, kulturean eta abarrean antzematen hasten da (ekonomia eta kulturaz gain).

Globalizazioaren ezaugarriak:

- 1) Dimentsio anitzeko prozesua; hots, arlo guztietan gertatzen dena: politikoa, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa ...
- 2) Mugaz gaindi, lurraldeetatik haratago: espazio eta denboraren mugak gainditzen dira (berehalakotasuna)
- 3) Glokalizazio prozesua: globalizazioka homogenizazio bat eragin duela esan ohi dugu (bidaiatu eta leku orotan McDonalds-ak topatzen ditugu). Ordea, era berean heterogeneizazio prozesu bat ere eman da, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera zabaldu baitzaigu (foro politikoaren areagotzeak sustatuta). = integrazioa vs. fragmentazioa (ikuspegi politikoa) = homogeneizazioa vs. heterogeneizazioa (kulturala).
- 4) Mendebaldeko hegemonia: AEBen nagusitasuna arlo guztietan. Globalizazio prozesuetan nabaria da, "McDonalizioa" ere deitu izan zaio. Aipagarria da globalizazioa, beraz, mendebaldeko hegemonia horrek zehaztua izan dela.
 - a. Arlo ekonomikoan, adibidez, globalizazio neoliberalak gailendu da.
- 5) Oposizioa: kritika andana eta oposizio zabala; bereziki, 90.hamarkada amaieran. Oposizio hori nazioarte mailan antolatzen hasi zen, eta ikusgarritasuna lortu zuen (Globalizazioaren Aurkako Mugimendua). Seattleko protestak.

Globalizazioari kritikak:

Globalizazioaren diskurtsoak bere izaera neoliberalak ezkututzen du (*teoria kritikoa*). Izan ere, Gerra hotzaren osteko garaian zegoen "alaitasun" tankerakoak, ezkutatu egin zuen hura.

Globalizazio neoliberalaren ondorioak:

- Ezberdintasun soziala
- Lan-baldintzak okerrera (emakumeen lanaren esplotazioa)
- Ekoizpenaren globalizazioa eta migrazioak
- Suntsiketa ekologikoa
- Herritarren atsekabea elite politikoei: herritarren urrun sentitzen ditugu, adibidez, EBko egiturak
- Finantza-merkatuen globalizazioa
- Zaintza-lanaren globalizazioa
- Enpresa transnazionalen jardura
- ...

3.gaila:

NAZIOARTEKO SISTEMA LANABES ANALITIKO GISA: AKTOREAK, ESTRUKTURA ETA PROZESUAK

Nazioarteko sistema ez da errealitate sozial bat; ez da nazioarteko gizartea bezala.

- Nazioarteko gizartea ikusi genuen gaur egun unibertuala, heterogeneoa, aktore ugariak eta abar dela.
- Nazioarteko sistema, ordea, lanabes analitiko bat da.

1. SISTEMAREN KONTZEPTUA

Sistemaren kontzeptuak nazioarteko harremanak ikasteko lanabes gisa funtzionatzen du, nazioarteko aktoreen artean existitzen diren interakzio multzoa ikasten duelako. (BRAILLARD)

Errealitate soziala aztertzeke erabili daitekeen lanabesa. Errealitate sozialaren sinplifikazio bat da.

Sistema hitzak, lau alderdi hartzen ditu kontuan:

- a) Sistema osatzen duten elementuak
- b) Elementu horien arteko harremanak edo interakzioak
- c) Elementu eta harremanek osotasun bat osatzen dute (sistema bera)
- d) Osotasun horrek nolabaiteko antolaketa erakusten du (estruktura)

2. NAZIOARTEKO SISTEMA LANABES ANALITIKO GISA

Nola baliatu da sistemaren kontzeptu hori nazioarteko harremanetan?

Nazioarteko sistema → *Barbé*

“Sistema aktore-multzo batek osatzen du, non haien arteko harremanek botere-konfigurazio jakin bat sortzen dute (estruktura), eta horren baitan interakzio-sare konplexu bat gauzatzen da (prozesua) arau zehatz batzuen arabera”.

Elementuak edo nazioarteko sistemaren unitateak	Nazioarteko aktoreak	Estatua, gobernu ez zentralak, GKE edo ONGak, nazioarteko erakundeak
Beren artean gauzatutako sareak, beren harreman eta interakzioek zehaztuko dituzte →	Prozesuak	Lankidetzak eta interakzioak, gatazka eta gerra
Sistemaren potentziak sortzen duten botere konfigurazioa	Estruktura edo antolaketa	Sistema polobakarra, bipolarra edo multipolarra

- Elementuak nazioarteko aktoreak lirateke (estatuak, ONGak, gobernu ez zentralak, nazioarteko erakundeak).
- Beren arteko interakzioak, prozesuak (lankidetzeta + interakzioa, gatazka + gerra).
- Nazioarteko sistema bera litzateke osotasuna (mota ezberdinak daude).
- Elementu (nazioarteko aktore) eta harreman horien ondorioz sortzen den konfigurazioa, botere konfigurazio bat da. Botere konfigurazio horren arabera, ezberdina izango da sistema. Horrenbestez, euztura, botere konfigurazioa (hierarkia bat) da nazioarteko sistemaren kasuan.
 - o Anarkia bat dago baina bada nolabaiteko ordena, arau jakin batzuk badaude nazioarteko erakunde eta nazioarteko zuzenbide publikoa.

3. NAZIOARTEKO SISTEMAREN ESTRUKTURA

(Aktore eta prozesuak hurrengo gaitan ikusiko ditugu. Hemen, euztura).

Nazioarteko sistema ≠ Nazioarteko euztura

- **Nazioarteko euztura:** Sistemaren potentziek (botere konfigurazioa ezartzeko gaitasuna duten aktore edo Estatuak) sortzen duten botere-konfigurazioa
 - o Logika hierarkikoa
 - o Sistemaren potentzien arabera eta euren botere euzturalarekin lotuta

Nazioarteko euzturaren arabera, sistema mota ezberdinak izango dira. Horrela, bada, nazioarteko sistema motak ezartzeko irizpidea honakoa da:

Potentzia handien kopurua (hots, nazioartean joko arauak zehazteko gaitasuna dutenak) fase historiko bakoitzean.

Beste kontzeptu batzuk:

- **Botere oreka:** boterea era uniforme batean banatzen dela adierazten du. Ez dira inposatzen indarrezko jarrerak; eta nagusitasun egoerak agertuz gero, gatazka/gerra egon daiteke, botere-oreka berri bat sortuz. Potentzien artean botere era orekatu batean banatzen denean, ez da jarrerarik inposatzen. Ordea, potentzia batek une batean nagusitasuna lortzen badu, botere oreka hori hautsi eta beste oreka bat sortzen da. Adibidez, XVIII-XIX mendeetan Europan, adibidez; gerora BHK hori apurtu zuen arte.
- **Hegemonia:** Nazioarteko sisteman Estatu batek botere-baliabide asko metatzen dituela adierazten du.
- **Polaritatea:** Boterearen banaketa. Nazioarteko euztura batean dauden polo nagusiak adierazten ditu. Polo horiek dira gainontzeko estatuak baino baliabide askoz gehiago dauzkaten estatuak, botere-euzturan eragin nabarmena daukatena.

- **Nazioarteko ordena:** Nazioarteko sistema nahikoa anarkikoa da (unitateak formalki berdinak dira, autoritate forma ezberdinak unitateen baliabideekin lotuta); ordea, nolabaiteko ordena badago (nazioarteko instituzio eta arauak).


4. NAZIOARTEKO SISTEMA MOTA EZBERDINAK

Esan bezala, botere konfigurazioaren arabera, sistema ezberdinak sortzen dira:

- **Sistema multipolarra:**

Hiru polo edo gehiago dauden kasuetan. Antzeko gaitasunak dituzten potentziak ezberdinak nagusitzen dira nazioarteko harremanetan. 5-7 izan dira historikoki. XVIII-XIX.mendeetan edo 1MG-2MG artean.

Ezaugarriak:



○ (potencias)

Boterea = n potentzia ($n = 5-7$ normalean).

Homogeneotasuna edo heterogeneotasuna sortzen da, potentzien balore sistemaren arabera.

- Heterogeneotasunak ziurgabetasun gehiago sortzen du.


Egonkortasuna = oreka multipolarra. Normalean potentzien arteko aliantza-sistema bidez izaten da.

Aldaketa = potentzien arteko aliantzak aldatzen direnean (normalean gerraren bidez) edo potentzia berrien agerpenarekin.

- Adibidea: AEB, Alemania, SESB, BH, Frantzia. Hemen adibidez heterogeneotasuna, balore sistema ezberdinak: kapitalista, komunista, faxista.

- **Sistema bipolarra:**

Bi potentzia gaitasun orekatuekin. Gerra Hotzean.



○ (potencias)

○ (otros estados)

Ezaugarriak:

Boterea = bi potentzien artean

Homogeneotasuna edo heterogeneotasuna sortzen da, potentzien balore sistemaren arabera.

- Heterogeneotasunak blokeak sortzea eragiten du (potentzien lidergoarekin). Egonkorragoa izango da homogeneoa izanez gero.


Egonkortasuna = oreka bipolarra.

Aldaketa = potentzien lidergoaren higadura, potentzien arteko konfrontazioa (gerra), gainontzeko estatuek blokearteko bipolaritatea higatzea eta abar.

- Adibidea: Gerra Hotza. SESB komunista eta AEBren kapitalismoa. Bi hauek higadura jasan zuten.

- **Sistema polobakarra (edo inperiala)**

Potentzia baten hegemonia, nagusitasuna. XIX.mendean BHren hegemonia. Gerra Hotzaren edo 2MGren ondoren, AEBren hegemonia.



Ezaugarriak:

Boterea = potentzia hegemonikoa

Balore sistemaren homogeneotasuna (potentzia hegemonikoak inposatuta "hegemón")

Egonkortasuna = hegemonikoa. Potentzia hegemonikoaren ardura da hori sustatzea, lankidetzaz eta abar. (Trump orain ateratzen ari da !).

Aldaketa = potentzia hegemonikoaren higadura edo gainontzeko estatuen arteko harremanen ondorioz.

TEORIA

4.gaia:

NAZIOARTEKO HARREMANEN KORRONTE TEORIKOAK

1. TEORIA ZIENTIFIKOAK

Diziplina zientifikoa XX. mendearen hasieran sortu zen, IMGren amaierarekin. Hemendik aurrera eskola teoriko ezberdinak agertu dira, eta eztabaida teoriko ezberdinak izan dira.

Teoria:

- Adierazpen orokorrak errealitate enpirikoari buruz
- Premisa zehatzetan oinarrituta (axiomak). Premisa horiek behin betikoak dira, eta ikuspegi teorikoek premisa ezberdinak dauzkate eta horrek asko aldatzen du ikuspegia.
- Azaltzeko edota aholkatzeko

Teoriaren oinarriak:

- Premisak edo axiomak (ez dira dudan jartzen)
- Kontzeptuak, lanabesak
- Hipotesiak (proposamenak)

Theory

A theory is a set of conclusions derived from assumptions (axioms) and/or evidence about some phenomenon, including its character, causes, and probable consequences, and their athivcal implications.

Theories provide a map, or frame of reference, that makes the complex puzzling world around us intelligible.

C. W. Kegley and S. L. Blanton (2011)

Nazioarteko harremanen helburua

Nazioarteko harremanen helburua ez da nazioarteko gertaeren kontaketa historikoa egitea. NHeK teoriak edo marko kontzeptualak sortzea du helburu, nazioarteko sisteman gauzatzen diren jokabide behargarriak azaltzea errazten dutenak.

World politics and Theory

There is an inescapable link between the abstract world of thory and the real world of policy. We need heories to make sense of the blizzard of information that bombards us daily. Even policy makers who are contemptous of 'theory' must rely on their own (often unstated) ideas about how the world works in order to decide what to do... Everyone uses theories – whether h or she knows it or not.

The effort to explain the world, predict new global problems, and sell others on a policy to deal with them is bound to result in controversy because even reasonable people often see realities differently.

When leaders face these kinds of intellectual challenges, they fortunately benefit from various theories of world politics from which they can draw guidance.

Teoria zientifikoarekin lotutako kontzeptu batzuk:

- *Enpirismoa*: ezagutzaren zutabea eskarmentu da (esperientzia)
- *Epistemologia*: ezagutza bera ikasten duen zientzia (ezagutzaren ikasketa)
- *Ontologia*: a priori existitzen diren kontzeptuak ikasten ditu (izatearen ikasketa)
- *Metodologia*: ikerketa bat burutzeko prozedurak edo metodoa (bidearen ikasketa)

2. PARADIGMEN ARTEKO EZTABAIDAK

PARADIGMA:

Errealitatea azaltzeko marko teorikoak (teorialariaren ‘mapa mentalak’, mundu ikuskerak)

Paradigmaren arabera: mundu-ikuskerak ezberdina izango da:

- Premisak: interesen egoera, aktoreen helburuak ...
- Aktore nagusiak: estatuak, erakundeak, sindikatuak, GKEak ...
- Aztergaiak: estatuen arteko gatazkak, lankidetzak, pobrezia ...
- Bakea/segurtasuna lortzeko baldintzak
- Metodologia
- Balore etikoak
- Ikuspegi ideologikoa, zientzialariaren jarrera

1. EZTABAIDA (1919-1950): oinarri filosofikoa (idealismoa vs. errealismoa)

IDEALISMOA	ERREALISMOA
<p>Premisak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Interes arteko harmonia badago - Ordena moral naturala - Gizakiak arrazionalak dira <p>Analogia domestikoa edo nazionala</p> <p>Proposatzen duten estrategia: estatu mailan dagoen ordena nazioarteko agertokira eramatea (instituzioak sortzea nazioarte mailan, nazioarteko zuzenbidea)</p> <p>Aktore nagusia: Estatua</p> <p>Printzipioa: lankidetzak</p>	<p>Premisak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Interes kontrajarriak daude eta gerrak sortzen dira - Gizakiek ezin dute nazioarteko ordena aldatu - Gizakien izaera gaiztoa da eta dominazioa bilatzen dute <p>Esparru nazionala eta nazioarteko banatuta</p> <p>Proposatzen duten estrategia (bizirauteko, nazioarteko ordena ezin delako aldatu): estatu bakoitzak boterea maximizatzea eta nazioarte mailan botere-oreka lortzea (horretarako mekanismoak bilatzen dituzte)</p> <p>Nazioarteko gizartea agerikoa da</p> <p>Aktore nagusia: Estatua</p> <p>Printzipioa: gatazka</p>

2. EZTABAIDA (1950'-1960'): oinarri metodologikoa (ikuspegi klasikoa vs. zientifikoa)

Arreta metodologian jartzen da (gizarte-zientzietan orokorrean dagoen eztabaida)

IKUSPEGI KLASIKOA	IKUSPEGI ZIENTZIFIKOA
<ul style="list-style-type: none">- Filosofian, historian eta zuzenbidean oinarrituta- Arrazoa- Teorialariaren jakintasuna, eskarmentua eta pertzepzioa- Tradizio hobbesiarra (estatuen gizartea): ez dago teoria zehatzik	<ul style="list-style-type: none">- Zientzia fisiko-naturalean oinarrituta- Froga-egiaztapea: giza-jiokabidea ere era zientifiko baten begiratu behar da- Ikerketa enpirikoa, iritziak sahistuz- Tradizio groicarra (gizakien gizartea): giza zientzien ikuspegia erabil daiteke

3. EZTABAIDA (1970'-1980'): aktoreen ingurua (errealismoa vs. liberalismoa/transnazionalismoa/globalismoa)

Aktoreen gaineko eztabaida (estatu-zentrisismoa vs. ikuspegi transnazionalista)

- Errealismoaren itzulera: NEORREALISMOA
- Ikuspegi transnazionalen hedapena: LIBERALISMOA/GLOBALISMOA/TRANSNAZIONALISMOA

Aurreko eztabaiden eragina: metodologiarekin zerikusia ere (metodo zientifikoa onartzen dute), kontzepzio teorikoak eta lanabes analitiko berriak sartzen dira.

4. EZTABAIDA (1980' amaieran): epistemologia eta ontologia Arrazionalismoa vs. erreflektismoa (Positibismoa vs. Pospositibismoa)

ARRAZIONALISMOA	ERREFLEKTISMOA
<ul style="list-style-type: none">- Natur zientzietan eta gizarte zientzietan epistemologia berdina: metodo zientifikoaren bidez (enpirikoa, askotan kuantitatiboa), errealitate soziala uler dezakegu- Errealitate objektiboa badago (gertaera/baloreen arteko banaketa): teoria objektibo, unibertask eta iraunkorrak eraiki ahal dira.- Estrukturak faktore materialek osatzen dituzte (boterea, interes ekonomikoak...)- Ikerlariaren neutralismoa	<ul style="list-style-type: none">- Metodo zientifikoak ez du balio gizarte zientzietan- Errealitate objektiboa zalantzan, azalpenak erlatiboak dira (ez daude teoria unibertsalak)- Estrukturak faktore ideologikoen (ere) osatzen dituzte (printzipioak, arauak...)- Ikerlaria ez da neutrala (pertzepzioek, aurreiritziek, ideologikoen, ikerketa kutsatzen dute)

Teoria arrazionalistei egindako kritika:

- Ordena (status quo) mantentzen dute
- Metodo zientifikoak ez du balio gizarte-zientzietan
 - Ikerlaria ez da neutrala (pertzepzioak, aurreiritziak, ideologiak)
 - Ez daude gertaera objektiboak; beraz, azalpenak erlatiboak dira (teoria unibertasalak ez dira existitzen)
 - Mundu sozialean ez dira erregularitasunak existitzen, teoriak sortzeko
 - Ez dago errealitate objektiborik teoriak kontrastatzeko
- Errealitatearen kontaketa Mendebaldeko gizon zuriak egin du

Theory is always for someone and for some purpose

ROBERT COX

3. NAZIOARTEKO HARREMANEN OINARRI FILOSOFIKOAK

Hiru tradizio intelektual bereizten dira nazioarteko gizartea deskribatzeko:

1. **Hobbesen tradizioa**: estatuen arteko gatazka iraunkorra (anarkia)
2. **Kanten tradizioa**: leku ezberdinetako pertsonen arteko lankidetzaren transnazionala (emantzipazioa)
3. **Grocioaren tradizioa**: estatuen arteko gatazka mugatua da, nazioarteko arauak eta instituzioak daudelako (ordena)

Beste tradizio batzuek eragina izango dute NHeetako hainbat korrante teorikotan (**marxismoa, feminismoa, poskolonialismoa...**)

4. OHIZKO PARADIGMAK

- 1) **Errealismoa** (arrazionalista): Hobbes-en tradizioa
- 2) **Idealismo/Liberalismo/Transnazionalismoa** (arrazionalista): Grocio-ren tradizioa
- 3) **Konstruktibismoa** (arrazionalismo eta erreflektibismoaren artean): Kant-en tradizioa

4) **Estrukturalismoa** (arrazionalista): Tradizio Marxista

PRESOAREN DILEMA

- Poliziak bi pertsona (A eta B) atxilotzen ditu lapurretatik
- Poliziak bi presoek iruzurra ere egin dutelako susmoa dauka
- Espetxera eramaten dute. Han egoera konpontzeko agertokia sortzen dute.

Honako hau baliatzen da NHko eskolak azaltzeko. Izan ere, eskola bakoitzaren ikuspuntuaren arabera presoaren jokabide ezberdina islatuko da.

		A	
		Elkarlana egin	Salatu
B	Elkarlana egin	Biak 5 urte espetxera	A aske B 20 urte espetxera
	Salatu	A 20 urte espetxera B aske	Biak 10 urte espetxera


1. **ERREALISMOA** (arrazionalista): Hobbes-en tradizioa

Ez da elkarlanik izango: elkar salatu eta biak 10 urte.

- Seguratasunaren dilemak nazioarteko jokabidea zehazten du.
- Estatuak ez dute gatazka nahi, bakea nahiago dute (jokoan konponbiderik onena: aske geratzea)

BAINA...

- Ezin dute konfiantzarik izan gainontzeko estatuengan, bakea gerra baino aukeratuko dutela (salatzera jokoan).
- Armatu behar dira, gerrarako prestatu (elkar salatu) euren subiranotasuna babesteko eta bizirauteko (10 urte bakoitzarentzat)




Testuinguru historikoa	Gerra Hotza (neorrealismoa 89ko h.tik aurrera)
Analisi unitatea	Estatua
Aztergai nagusia	Segurtasun nazionala (ikuspuntu militarra), High politics (segurtasuna) vs. Low Politics (ekonomia, ingurumena, giza eskubideak) Adibidez: AEB eta Txinaren arteko gatazka Hego Txinako itsasoan (Txina base militarrek jartzen ari da).
Mundu ikuskera:	Estatuen arteko gatazka Anarkia (billarreko mahaia) Nahiz nazioarteko erakundeak egon, estatuen interesak nagusitzen dira
Autoreak	Hans Morgenthau, E.H. Carr, Martin Wight, Hedley Bull (gizakien gaiztakeria azpimarratzen dute) Kenneth Waltz (anarkiaren eragina)

- Subiranotasunak dakar Estatuak 'formalki' anarkikoa den ingurune baten aritzen direla.
- Estatu-sistemak, eta bere izaera anarkikoak, arazo larri bat dauka. Estatuaren segurtasun.-egoerak elkarri baztertzen diete.
- Estatu batek bere lurralde defendatzeko prestatzen dituen planak mehatxutzat edo erasotzeko (ez defendatzeko) plantzar jo ditzakete bere estatuak.

2. IDEALISMO/LIBERALISMO/TRANснаZIONALISMOA (arrazionalista): Grocioren tradizioa

Komunikazioaren bidez emaitzarik onena lortuko dute.

- Segurtasun dilema errealista hobe daiteke ekintzak errepikatuz edo komunikazioaren bitartez (bilera espetxek patioan)
- Diplomaziaz baliatzeak, nazioarteko erakundeetan parte hartzeak, truke ekonomikoak mesfiantza leuntzen dute.
- Estatuak elkarrekin lan egiten dute interes hutsagatik (justiziari engainatzen jokoan).
- Elkarrekin lan egiten gehiago irabazten dute tradizioa egiten baina (5 urteko espetxea jokoan)



Testuinguru historikoa	Gerren artean (idealismoa) Distentsioa (transnazionalismoa)
Analisi unitatea	Nazioarteko aktore anitzak (Nazioarteko erakundeak, enpresa transnazionalak, GKEak)
Aztergai nagusia	Giza jarduerarekin lotutako arazoak (merkataritzaren arlokoak, ingurumena, baliabideen gabezia ...) Adibidez: Iran, AEB eta EBren arteko akordio nuklearra Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziaren bitartekaritzarekin.
Mundu ikuskera:	Lankidetzeta, interdependetzia konplexua (armiarma sarea) Nazioarteko erakundeek sustatu dezakete lankidetzeta estatuen interesetan egotea Nazioarteko erakundeei esker lankidetzeta nagusitu daiteke
Autoreak	Robert Keohane eta Joseph Nye


‘errealismoa ezinbesteko osagaia da mundu politikoaren analisi batean, bere enfasia boterean, interesetan eta arrazionalitatean, gaia ulertzeko gako baita. Hala, nazioarteko harremanetara edozein hurbilketa pentsamendu errealistaren oinarritzko elementuak kontua hartu behar ditu. Instituzioak eta nazioarteko arauak ikasten dituzten autoreek edo autore marxistek ere premisa errealistak hartzen dituzte abiapuntu. Errealismoa mundu-politikari eta estatuen jarduerari buruz funtsezko ideietan oinarritzen dela eta, aurrerapena nazioarteko harremanetan posiblea izango da nukleo errealistatik eraikitzen badugu’

ROBERT KEOHANE

3. KONSTRUKTIBISMOA (arrazionalismo eta efektibismoaren artean): Kant-en tradizio

Identitate komuna dutenez ez dute elkar salatuko.

- Estatu guztiek ez daukate identitate antagonikoak, elkarri aurka egitera eragiten dutenak (salatzea jokoan)
- Estatu batzuek identitate komunak daukate (Mafiako presoak jokoan): elkar ezagutzen dute, arauak partekatzen dituzte zentzu onean eta txarrean
- Komunikazioa ez da beharrezkoa elkarrekin lan egiteko (ez akusatzen jokoan): Elkarlana bermatuta dago alde aurretik.
- Baina, gainera, ez dute elkarlan egiten interesgatik, baizik eta identitatea partekatzen dutelako (gu=mafiosoak, haiek=polizia)



Identitatea eta ideiak azpimarratzen dituzte; ez soilik interesak. Haultzat nazioarteko erakundeen jardura garrantzitsua bada hori, identitate komunak sortzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Testuinguru historikoa	80.etik aurrera
Analisi unitatea	Nazioarteko aktore anitzak (identitateak partekatzen dituzten estatuen komunitateak, aktore supranazionalak)
Aztergai nagusia	Giza jarduerarekin lotutako arazoak (lankidetzak, Nazioarteko Erakundeak, nazioarteko erregimenak) Adibidez: EBren integrazio proiektuaren bilakaera
Mundu ikuskera:	Nazioarteko erakundeen bidez balore eta identitate komunak sortzen dira estatuen artean Identitate komunei esker lankidetzak nagusitu daitezke: eskualdeko komunitateak, estatuen komunitateak
Autoreak	<ul style="list-style-type: none"> - Alexander Wendt (anarchy is what states make of it) - Nicholas Onuf (the world as we make it)

4. ESTRUKTURALISMOA (arrazionalista):

Estrukturalismoa estrukturan oinarritzen da, eta estruktura hori kapitalismoa da. Honek, herrialdek sistema ekonomikoan zein momentutan sartu ziren adierazten du. Haultzat, herrialde industrializatuak zentroa dira, eta sistema kapitalistan beranduago sartu ziren (azpigaratuak) periferia izango dira. Orduan, lehen harreman kapitalistak Europak agertu ziren.

Testuinguru historikoa	Deskolonizazioa (1970h)
Analisi unitatea	Mundu sistema ekonomiko kapitalista
Aztergai nagusia	Zentro periferia harremanak Azpigarapena sortu duten mekanismoak Adibidez: Kongoko gerraren iturburu koloniala
Mundu ikuskera:	Dependentzia (olagarroa)
Autoreak	<ul style="list-style-type: none"> - Imperialismoaren autoreak (Hobson, Luxemburgo, Lenin) - Dependentziako teorialariak (Raul Prebisch, Cardoso y Faletto, Boaventura Dos Santos) - Mundu Sistemako Teorialariak (Andre Gnder Frank, Immanuel Wallerstein, Samir Amin)

5. PARADIGMA ERREFLEKTIBISTAK

1. Feminismoa
2. Teoria Kritikoa
 - a. Neomarxistak
 - b. Neokosmopolitak
3. Poskolonialismoa
4. Posmodernismoa (posestrukturalismoa)

1. FEMINISMOA

Testuinguru historikoa	1980. hamarkadan Jatorria teoria feministan
Analisi unitatea	Patriarkatua
Aztergai nagusia	Patriarkatuaren eragina NHetan eta nhtan Genero ikuspegia Adibidez: George W. Bush administrazioaren kanpo-politika maskulinizatua
Mundu ikuskera:	Botere harremanak generoaren arabera
Autoreak	<ul style="list-style-type: none"> - Cynthia Enloe (“Non daude emakumeak?, kuriositate feminista, “personal is international”). - J. Ann Tickner - V. Spike Peterson - Marysia Zalewski - Anne Sysson Runyan

2. TEORIA KRITIKOA:

Testuinguru historikoa	1980ko hamarkada Jatorria: <ul style="list-style-type: none"> - Marxen ideia humanistak; Gramsci - Habermas
Analisi unitatea	Elite nazionalak eta transnazionalak Komunitate transnazionalak
Aztergai nagusia	Nola eraikitzen diren botere esturaturak eta nola legitimatzen diren <ul style="list-style-type: none"> - Adibidez: globalizazio zorientsuaren diskurtsoaren kritika, atzean egon diren interes neoliberalak eta horren aurrean dauden alternatiba sozioekonomikoak Gizakien komunitateak, giza eskubideak, gai normatiboak <ul style="list-style-type: none"> - Adibidez: giza eskubideen urraketak esku-hartze humanitarioetan
Mundu ikuskera:	Botere forma ezberdinak ezagutzaren eta diskurtsoaren atzean Mundu kosmopolita
Autoreak	<ul style="list-style-type: none"> - Robert Cox (“theory is always for someone and for some purpose”) - Andrew Linklater

3. POSKOLONIALISMOA

Testuinguru historikoa	1980ko hamarkada Jatorria: deskolonizazioa
Analisi unitatea	<ul style="list-style-type: none">- Kolonialismoa- Inperialismoa
Aztergai nagusia	Kolonialismoaren legitimazioa kultura eta ezagutzaren bidez <ul style="list-style-type: none">- Adibidez: diskurtso eta jarrera islamofoboaren hedapena Europan
Mundu ikuskera:	Ezagutzaren atzean dependentziaren legitimazioa
Autoreak	<ul style="list-style-type: none">- Frantz Fanon, Edward Said- Walter Mignolo, Silvia Rivera Cusicanqui, Anibal Quijano, Ramón Grosfoguel

4. POSMODERNISMOA:

Testuinguru historikoa	1980ko hamarkada (Michel Foucault, Jacques Derrida)
Analisi unitatea	<ul style="list-style-type: none"> - Ikuspegi arrazionalisten kritika - Errealitateen aniztasuna
Aztergai nagusia	<ul style="list-style-type: none"> - Errealitatearen dekonstrukzioa - Identitate eta praktika ezberdinak - Diskurtsoak, sinboloak eta irudikapen kulturalak <p>Adibidez: nola nagusitu da anarkiaren diskurtsoa Nazioarteko Harremanetan, AEBtako soldaduen ongietorriak ikuspegi kritiko batetik</p>
Mundu ikuskera:	Ez dago egia bakarra/objektiboa, dena zalantzan (dena erlatiboa da)
Autoreak	<ul style="list-style-type: none"> - James Der Derian - Michael Shapiro - Richard Ashley - Lene Hansen (segurtasuna eta irudiak: Muhammad marrazkiaren krisia).

ADIBIDEA: SEGURTASUNARI BURUZKO IKUSPEGI TEORIKO EZBERDINAK

	ANALISIAREN DIMENTSIOA	ANALISIAREN UNITATEA	IRUDIA	GATAZKA ETA GERRA	BAKEA
ERREALISMO	Boterea eta interes nazionala	Estatuak	Estatuak egoistak eta lehiakorak dira	Gatazka eta gerra sahiestezinak nazioarteko sisteman	Potentzien botere-orekaren bitartez (bake negatiboa)
TRANSNACIONALISMO	Demokrazia, interdependentzia eta instituzioak	Estatuak, nazioarteko erakundeak eta gizarte zibila	Estatuak elkarrekin lan egiten dute nazioarteko instituzioen baitan	Gatazka eta gerra saihestu ahal dira lankidetzaren bitartez	Bakea lankidetzaren bidez (bake positiboa)
KONSTRUKTIBISMO	Balore eta identitate komunak	Aktore anitzak, estatuen komunitateak	Lankidetzaren balore eta identitate partekatuen ondorioz	Gatazka eta gerra saihestu ahal dira identitate eta balore komunak landuz	Bakea identitate partekatuen bidez (bake positiboa)
ESTRUKTURALISMO	Desberdintasuna, harreman kolonialak, esplotazioa, klase sozialen arteko borroka	Mundu sistema kapitalista	Globalizazio neoliberalaren inperialismo berria da	Gatazka eta gerra saihestu ahal dira kapitalismoa baztertuz	Bakea sistema sozioekonomiko alternatiboaren bidez
KRITIKOAK (teoria kritikoak, feminismoa, poskolonialismoa, posmodernismoa)	Botere estrukturalak Emantzipazioa	Indibiduak Elite nazionalak eta transnacionalak	Ezagutza eta diskurtsoak botere-forma eztabaidagarriak	Gatazka eta gerra saihestu ahal dira aldaketa erradikalen bidez	Komunitarismo eta diskurtso menperatzaileen kontrako oposizioaren bidez

AKTOREAK

5.gaia:

AKTORE KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA ETA EBOLUZIOA

NAZIOARTEKO AKTOREEN TIPOLOGIAK

1. AKTOREAREN DEFINIZIOA

Aktore:

“ Nazioarteko sistemaren unitatea (entitatea, taldea, gizabanakoa; ez du zertan ospetsua izan behar)

baliabideak mobilizatzeko gaitasuna duena bere helburuak lortu ahal izateko,

sistemaren beste aktore batzuen gainean eragina izateko gaitasuna duena

eta nolabaiteko autonomia duena. “

2. AKTORE KONTZEPTUAREN EBOLUZIOA

Ikuspegi klasikoa:

Aktore bat da *nazioarteko izaera* duen subjektua. Ikuspegi juridikoa.

Egungo ikuspegia:

Irizpide zabalagoak kontuan hartzen ditu: duen rola, eragina izateko gaitasuna ... Ikuspegi funtzionala.

Eboluzioa

- Tradizionalki: kontzepzio errealistak
- 70.h: fenomeno transnazonala → estatua zentrala zela onartu baina kritika
- 80.h: azpiestatu fenomeno → aktorea edo fenomenoan aintzat hartzen (gobernu ez zentralak, udalak eta abarrak).

1) Paradigma errealista:

- Oinarrizko aktorea: estatua
- Irizpidea: juridikoa (estatu subiranoak nazioarteko onarpenarekin)
- Nazioarteko harremanak = estatuen arteko harremanak

2) Azalpen transnazionalista (liberala):

- Harreman mota anitzak ikusi zituzten
 - o Estatuen arteko harremanak
 - o Harreman intergubernamentalak (Nazioarteko Erakundeen artean)
 - o Harreman transnazionalak (enpresa multinazionalak, GKEak, lobbyak)

3) Sistema globalaren paradigma:

- 70' amaiera – 80' hasiera
- Planteamendu transnazionalistak zehazten dituzte aktoreen funtzionalitatea azpimarratuz)
- Azpiestatuko aktoreak sartzen dituzte

Horrela, aktore mota guztiak sartzen dituzten koadro bat diseinatzeko dute.

3. NAZIOARTEKO AKTOREEN TIPOLOGIAK

PUBLIKOAK	PRIBATUAK
<ul style="list-style-type: none">- Estatu nazioa Nazioarteko onarpena daukaten Estatu tradizionalak (AEB, Maroko, Frantzia, Luxenburgo...)- Estatuarteko Gobernuako Aktoreak (EAGA) Gobernuarteko Erakundeak (GE) edo Nazioarteko Erakundeak (NE) (NBE, NATO, Ameriketako Estatu Batuen erakundea (AEE), Munduko Merkataritza Erakundea (MME)...))- Gobernuako Aktore Ez Zentralak (GAEZ) Gobernu Ez Zentralak (GEZ) eta udalak (Quebec, Flandes, Euskadi, Bavaria, Eskozia, Johannesburgo, Sao Paulo...)	<ul style="list-style-type: none">- Estatuarteko Gobernu Kanpoko Aktoreak (EAGKA) Aktore transnazionalak<ul style="list-style-type: none">o GKEak edo Gobernu Kanpoko Erakundeak: AL, Mugarik Gabeko Medikak ...o GMT edo GMG: Emakumeen Mundu Martxa, La Vía Campesina ...o Enpresa multinazionalak: Shell, Bayer, Toyota ...- Estatu baitako Gobernu Kanpoko Aktoreak, EGKA (eremu nazionalekoak)<ul style="list-style-type: none">o Alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak ... nazioarteko sareetan parte hartzen dutenako CCOO, UGT eta ELA sartuta daude Nazioarteko Sindikatu Konfederazioan; LAB, Munduko Foro Sozialean; Euskal Herriko Emakumeen Mundu martxa ...- Norbanakoak Pertsona ospetsuak, mundu iritzi publikoan eragina dutenak (Nelson Mandela, Naomi Klein, Noam Chomsky...)

Zehaztasun batzuk:

- Aktore garrantzitsuenak Estatuak eta Nazioarteko Erakundeak diren arren, gainontzeko aktoreen papera ezin da mespretxatu

- Harremanak edo interakzioak ez dira sailkapeneko mota bateko aktoreen artean soilik ematen; hots, aktore mota ezberdinen artean ere badaude harremanak:
 - Estatu/multinazionala (India/British Telecom)
 - Estatu/GAEZ (Frantzia/Quebec)
 - NE/GAEZ (UNESCO/Katalunia)
 - GKE/ multinazionala (Munduko medikuak/Bayer)

6.gaia:

ESTATUA

1. ESTATUAK NAZIOARTEKO AKTORE GISA (ikuspegi juridiko-administratiboa)

ESTATUA:

Estatua antolakuntza sistema gisa finkatzen da mundu-mailan Westfaliako Itunaz geroztik (1648an). Nazioarteko konferentzien, kolonialismo eta inperialismo prozesuen bitartez hedatu zen mundu mailan Europan jaiotako sistema politikoa.

- Horrela sortzen da estatuarteko sistema internazionala
Ondorioz, Estatuak izan dira nazioarteko harremanetako sistema politikoaren aktorerik garrantzitsuenak.

Estatuen artean, honakoak bereiz ditzakegu:

NBEen estatu kideak (subiranoak, hau da, independenteak):

Urtea	1945	1965	1985	2005	2014
Estatuak	51	117	159	191	193

Azken onarpenak: Suitza (2002), Timor-Leste (2002), Montenegro (2006), Hego Sudan (2011)

Estatu subiranoak, NBEren kideak EZ direnak:

- Vatikanoko Hiriko Estatuak: Begiralea da, parte hartze mugatua dauka
- Txinako Errepublika (Taiwan): kide 1971 arte

Lurralde EZ subiranoak:

Ez dira independenteak, ezta kontrolatzen dituen Estatuarenak ere.

- Groenlandia / Kalaallit Nunaat: Lurralde autonomoa Danimarkako koroari elkartuta, ez da EBren kidea.
- Gibraltar: Itsasoz haraindiko lurralde britainiarra
- Malvinak / Falkland Uharteak: Itsasoz haraindiko lurralde britainiarra
- Puerto Rico: AEBri elkartutako estatu librea
- Keledonia Berria / Kanaky: Frantziaren kontrolpean dagoen lurraldea
- Cook Uharteak: Zeelanda Berriari elkartutako Estatu autonomoa
- ...

Aipagarria da oraindik mendean dauden lurralde gehienak Karibeko eta Pazifikoko uharteak direla. Horietan handiena Groenlandia da.

Egoera berezian dauden beste lurralde batzuk:

- Kosovo: Independentzia 2008an aldarrikatu zuen, Serbiak eta beste estatu batzuek ez dute onartzen; NBEko 91 herrialdek onartzen dute.
- RASD (Saharako Errepubika Arabiar Demokratikoa): 1976an aldarrikatu; 84herrialdek onartuta; Maroko okupatuta, NBEk ez du okupazioa onartzen.
- Palestina: Palestinako agente Nazionalak kontrolatzen dituen herrialdeak (1994tik, Zisjordania eta Gazako zerrendak osatuta) (2011tik UNESCOn; 2012tik NBE 'Estatu begirale es kidea'; 2017tik INTERPOLen)
- Ipar Zipreko Turkiar Errepublika: 1983, Turkiak besterik ez du aitortzen.

Guztira (Estatuak + bestelako lurralde anitzak): 230 unitate inguru

Lurralde EZ autonomoak (NBE zerrenda):

Menpeko lurraldeak, non, deskolonizazio prozesua egon behar den NBE agindupean.

- NBE Deskolonizazio Batzordea (jarraipen organoa) litzateke prozesu horren jarraipena burutzeko organoa.

Egungo zerrenda ofiziala:

Noren kontrolpean	Lurralde Ez Autonomoak (17)
Erresuma Batua (10)	Aingira, Bermudak, Gibraltar, Kaiman U, Malvinak, Turk eta Caico U, Britainiar Birjina U, Montserrat, Pitcim, Santa Helena...
Frantzia (2)	Kaledonia Berria, Polinesia Frantsesa...
AEB (3)	Guam, Samoa Amerikarra, AEBen Birjina
Espainiarrek Marokoren menpe utzi	Mendebaldeko Sahara
Erresuma Batuak Zeelanda Berriaren esku	Tokelau

ESTATUEN SUBIRANOTASUNA ETA NAZIOARTEKO AITORPENA:

“Estatu guztiak berdintasun subiranoa daukate. Eskubide berdinak eta betebeharrak berdinak dituzte, eta nazioarteko komunitatearen kideak era berdinean dira, nahiz eta ezberdintasun ekonomikoak, sozialak, politikoak edo bestelakoak egon”

- Juridikoki: Estatu guztiak subiranoak eta berdinak dira.
 - Zuzenbidezko berdintasuna / izatezko desberdintasuna
 - Teorian: berdintasun subiranoa edo zuzenbidezkoa
 - Praktikan: izatezko desberdintasuna; lurraldeagatik, populazioagatik, ekonomiagatik ... estatuak ez dira berdinak.

- Nazioarteko onarpena: (askotan berehalako prozesua izaten da)
 - Independentzia aldarrikapena
 - Gainontzeko Estatuak aitortua

2. ESTATUAREN ELEMENTU KONSTITUZIOGILEAK

ELEMENTU KONSTITUZIOGILEAK

Elementu konstituziogileetatik mintza garenean, NHTan estatuaren gaitasunak baloratu eta hierarkia bat ezartzeko irizpideez mintzo gara.

- Estatuaren gaitasunak nazioarteko harremanetan baloratzeko eta hierarkia bat ezartzeko

Elementu hauen baitan *baliabide ukigarriak* eta *baliabide ukiezinak* bereiziko ditugu.

Teorian: baliabide ukigarriak dira Estatu baten boterea edo gaitasuna adierazten dutenak.

Praktikan: baliabide ukigarri horiek beste baliabide ukiezinekin konbinatzen dira (zeinak zehazteko zailak eta neurtzeko konplexuak diren).

Nazioarteko Harremanetan “eragina” izateko, Estatu bat gai izan behar da baliabide ukigarriak eta ukiezinak konbinatzeko.

- **Baliabide ukigarriak** (neurgarriak): adina, lurraldea, ekonomia...

- Adina:

Bitzita historiko gehiago ala gutxiago (bere sorreraz edo independentziaz geroztik)

- Estatu zaharrak: mende batzuk existitzen (Erresuma Batua (1707) eta Italia (1866))
- Estatu berriak: independentzia berria (Eslovenia (1991) eta Eritrea (1993))

Estatu gazteek zailtasun gehiago dituzte moldatzeko (azpigarapena, zerbitzu diplomatiko ahula, azpiegituren gabezia...)

- Lurraldea

Estatu guztiek lurralde mugatu bat daukate (espazioa):

- Baliabide naturalak (petroleo-erreserbak, ur geza...)
- Interes geoestrategikoak (kokapena, itsasora sarbidea...)

Lurralde gehien dauzkaten Estatuak: Errusia (17mill. km^2), Kanada (9,9), AEB (9,6), Txinako H.E. (9,5), Brasil (8,5), Australia (7,6), India (3,2) eta Argentina (2,7) → (munduko %50 osatzen dute)

- Populazioa:

Munduko populazioa modu ezberdinetan banatzen da

- Estatu jendetsuak: Txinako H.E. (1.315 milioi), India (1.103), AEB (298), Indonesia (222), Brasil (186) eta Errusia (143) → Mundu populazioaren %50 inguru.
- Biztanle gutxiko Estatuak: Islandia (295000) eta Andorra (67000)

Populazioaren potentziala ez da neurtzen bakarrik modu absolutu batean, bestelako adierazleak ere badaude (hezkuntza, alfabetizatzea, giza garapena...)

- Gaitasun ekonomikoa (Oinarrizko elementua da)

Adierazleak:

- BPG osoa eta BPG per capita
- Kanpo merkataritza
- Ekoizpen industrialak
- Energia kontsumoa...

Estatua	BPG osoa (\$)	BPG per capita (\$)
AEB	12.227 mila milioi	49.922
Txinako H.E.	10.120 mila milioi	4.382
Angola	109 mila milioi	4.329

- Gaitasun militarra:

Herrialde baten boterea ebaluatzeko elementu gakoa.

Adierazleak:

- Indar armatuen kopurua (soldadu kopurua)

- Armamentua (mota eta bolumena)
- Gastu militarrik
- Armagintza eta merkataritza...

Arma nuklearrak dituzten herrialdeak nabarmentzen dira: AEB, Errusia, Erresuma Batua, Frantzia, Txinako H.E., Israel, India, Pakistan

- **Baliabide ukiezinak** (zailak neurtzeko): populazioaren kohesioa, borondate politikoa munduan parte hartzeko...

- Populazioaren kohesioa:

Herritarren gobernu edo Estatu babesten duten ala ez. (Kontra badaude, estatu ahulagoa da).

Faktore anitzen arabera da:

- Babes politikoa, aniztasun etnikoak, kultura ezberdinak, erlijioan, botereen inposizio maila, errepresioa, injustizia ...

- Nazioarteko lidergorako gaitasuna:

Buru politikoei ospea duten kanpoan eta nazioarteko eragina lortzen duten.

- Alderdi historiko eta politikoei lotuta, planteamenduen arabera, egoera ezberdinekiko jokabideen harira eta abarratik.

- Nazioarteko parte-hartzearen borondatea.

Hau hainbat baliabide baliatuz burutzen da (ekonomikoak, merkataritzakoak, teknologikoak, militarrik ...). Horrela, kanpo politikan helburuak lortzeko.

Zehaztuz

- Nazioarteko erakundeetan presentzia nabarmena izateko
- Diplomazia aktiboa mantentzeko
- Garapenerako lankidetzaren burutzeko
- Gatazketan bitartekari arituta, bake misioetan parte hartuz zein berreraikitze prozesuan dauden herrialdeekin kolaboratuz, besteak beste (hots, borondate politikoen arabera).

3. BOTERE ESTRUKTURALA ETA "POTENTZIA" KONTZEPTUA

Boterea baliabideen batuketan gisa ulertzeaz gain (orain arte egin dugun moduan), *Estatuaren boterearen* kasuan kanpoko esturkturarekin (nazioartekoarekin) erlazionatu behar da; esturktura horrek beti baldintzatzen baitu.

Horrela, ezberdindu:

- Botere jabetzea = baliabideak betetzea
- Botere erlazioa = nazioarteko esturkturan eragina izateko gaitasun

BOTERE ESTRUKTURALA:

Estatu baten gaitasun nazioarteko politikan joko arauak definitzeko

POTENTZIA:


Joko arauak ezartzen dituzten Estatuak deritze. Hauek baliabideak dauzkate eta beraien arauak defendatzeko mobilizatu ditzakete.

4. ESTATUEN SAILKAPENA (tipologia/ikuspegi politikoa)

Estatuek munduan esku-hartzeko duten gaitasunaren arabera, hierarkia bat osatzen da (gaitasun handiagoa / txikiagoa / inolako gaitasunik eza).

- Dena den, aipagarria da fase historikoaren arabera sailkapena aldatu egin dela

Sailkapen hau egiteko, aurreko ataletan azaldutako *baliabide ukigarriak*, *baliabide ukiezinak* eta *botere estrukturala* hartzen dira aintzat.



SUPERPOTENTZIA:

Mundu osoan funtzio bat betetzeko gaitasuna duten Estatuak.

- Munduko leku orotan har dezakete parte
- Gaitasunak metatzen dituzte:
 - o Mundu ekonomian eragina izatea
 - o Jarduera diplomatiko nabarmena izatea
 - o Esku-hartze militarra burutzea
- Beren boterearen oinarriak faktore ezberdinen arabera dira:
 - o Aberastasun materiala
 - o Espazio zabalaren kontrola
 - o Giza-baliabideak
 - o Teknologia (aurrerapena)

1945 eta 1991 bitartean SESB eta AEB ziren superpotentziak. Gaur egun, AEB da potentzia hegemonikoa (nahiz geroz eta muga gehiago izan).

POTENTZIA HANDIA:

Mundu osoan funtzio bat bete nahi duten arren, beren gaitasun errealekin nazioarteko harremanen arlo batera mugatzen diren Estatuak.

- Mundu taularen zati batean bakarrik jokatzen dute. Mugak dituzte (ekonomikoak, militarrek ...) baina eragin zabala dute halere.

Gerra Hotzean Erresuma Batua, Frantzia eta Txina izan ziren. Gaur egun, horiekin batera, Errusia, Alemania eta Japonia.

Kasu berezia da Europar Batasunarena (EB).

Etorkizunean India eta Brasil ere potentzia handi izatea aurreikusten da.

POTENTZIA ERTAINA:

Tamaina handiko ala ertaineko Estatuak dira, baliabide ekonomiko garrantzitsuak eta nolabaiteko eragin diplomatikoa dutenak.

Konplexua da potentzia ertainen ezaugarriak zehazteko irizpideak definitzea; izan ere, zaila da “potentzia ertaina” eta “eskualdeko edo tokiko potentziaren” arteko muga zehaztea.

Dena den, honakoak jotzen dira potentzia ertaintzat: Italia, Espainia, Nigeria, India, Pakistan, Kanada, Mexiko, Brasil, Argentina ...

ESKUALDEKO EDO TOKIKO POTENTZIA:

Nolabaiteko pisua duten Estatuak dira (politikoa, ekonomikoa, militarra, demografikoa ...) eta politika aktibo bat dute eskualdean.

Horrela, beren eremu geografikoetan “potentzia ertainak” dira.

- Mugak izan arren, mundu mailan eragiten saiatzen dira.

Turkia, Indonesia, Maroko, Aljeria, Egipto, Hego Afrika, Kongo, Kuba ...

ESTATU TXIKIA

Lurralde gutxi edota biztanleria urria, baliabide mugatuak eta nazioarteko parte-hartze eskasa duen Estatuak.

Herrialdeen zerrenda luzea da: Uruguay, El Salvador, Jamaika, Benin ...

MIKROESTATUA

Lurralde eskasa eta populazio gutxiko Estatuak.

Aktore batzuen arabera: baldintzak

- 250.000 biztanle baino gutxiago
- 1.000 km² baino gutxiago (25 estatu munduan)

Ugariak dira munduan: Monako, Andorra, Liechtenstein, Karibeko uharteak (Granada, Santa Luzia ...), Pazifikoko uharteak (Tonga, Tuvalu ...)

Munduko mikroestatuak



7.gaia:

NAZIOARTEKO GOBERNU ERAKUNDEAK:

Nazio Batuen Erakundearen kasua

1. TERMINOLOGIA: NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK NAZIOARTEKO AKTORE GISA

Nazioarteko Erakundeek rol nabarmena jokatzen dute egungo nazioarteko gizartean. Nazioarteko aktore izateko, baliabideak mobilizatzeko gaitasuna izan behar dute, nazioarteko gainontzeko aktoreen gainean eragiteko gaitasuna izateko (besteak beste).

- Estatuek pertsonalitate juridiko osoa (ez daude ezertara mugatuta) duten arren, nazioarteko erakundeen pertsonalitate juridikoa subjektiboa da, euren helburuak betetzera mugatuta daudelako, hau da, jorratzen dituzten alorretara eta funtzioetara mugatuta daude.

Adibidez, turismoko mundu erakundearen funtzioa turismora mugatuko da, ez ditu segurtasun funtzioak beteko, hau da, ez du beste funtzioak betetzeko gaitasunik izango.

- Nazioarteko Erakundeak ugariak eta askotarikoak dira, baina nazioarteko harremanetan (oro har edo alderdi zehatz batzuetan) eragina izateko gaitasuna daukatenak nabarmentzen dira.
 - o Nazioarteko Erakundeak (NE)
 - o Gobernu Arteko Erakundeak (GAE)
 - o Estatu Arteko Gobernu Erakundeak (EAGE)

2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

NAZIOARTEKO ERAKUNDEA:

Estatuek osatutako elkartea da, nazioarteko akordio baten bidez hiru estatuk edo gehiagok abian jarritakoa hauen helburu komunak sustatzeko; eta erakunde egitura eta organo iraunkor eta propioak dituena, erakundearen parte hartzen duten estatu horiengandik independenteak izango direnak.

Adibidez; Nazio Batuen Erakundea 1945ean sortu zen San Franciscoko Konferentzian; hortaz, itunari San Franciscoko Ituna deritzo.

EZAUGARRIAK:

- Eredu ezberdinak dituzte:
Estruktura minimoa vs. Organigrama konplexua
- Faktore anitzen arabera sortu eta garatzen dira:
Erakundearen genesisia, kideak, helburuak, jarduerak, baliabide ekonomikoak ...
- Organigrama anitzak:
Kontseilua, idazkaritza, legebiltzarra, auzitegia, batzorde espezializatuak ...

Sei ezaugarri dituzte komun dituzte nazioarteko erakundeek:

1. Izaera interestatala dute: estatuek osatutakoak dira
2. Oinarri boluntario/borondatezkoa: estatuen adostasuna beharrezko da
3. Estructura eta antolaketa egonkor minimoa
4. Akordio edo itun zehatz batean oinarrituta
5. Pertsonalitate juridikoa: borondate juridiko propioa, estatu kideen borondatetik independentea
6. Kideen arteko lankidetzaren instituzionalizazioa: nazioarteko interes komunekin lotutako helburuak

Nazioarteko Erakundeek eragina izan dute Nazioarteko Harremanen humanizazioan, sozializazioan, antolaketan eta demokratizazioan:

1. Foro berriak sortu dira, zeinetan balore berriak bultzatu diren (giza eskubideak, giza garapena, berdintasun ekonomikoa, deskolonializazioa, ingurumena..)
2. Aktore berriak
3. Eztabaida publikoak
4. Nazioarteko arauak sortzeko mekanismoak
5. Kontrol prozedurak

3. SORRERA

XIX. mendean agertzen diren arren, XX. mendean garatzen dira

Oro har, honako **baldintza** hauek agertze direnean existitzen dira:

- Estatu kopuru handi samarra
- Harreman dinamika bat Estatuaren artean (ekonomikoak, komertzialak, kulturalak, diplomatikoak ...)
- Arazo komunak jorrazteko beharra (hurbiltasun geografikoagatik, interes ekonomikoengatik, aurrerapen zientifiko eta teknikoengatik ...)
- Herrien arteko lankidetzaren loturak zehazten dituzten mekanismoak ezartzeko borondatea

Zehazki, hiru **fenomeno historiko** gako:

1. Nazioarteko konferentziak ugaltzea: lankidetzak politikoa
 - Vienako Kongresuaren Azken Akta (1815): itun juridiko multilateralak
2. Industria eta merkataritzaren garapena: lankidetzak teknikoak eta ekonomia
 - Lehenengo organo iraunkorrak eta propioak sortzen dira (ibai batzordeak eta batasun ekonomikoak)
3. II. Mundu Gerra: lankidetzak politikoa (segurtasun kolektiboa) eta ekonomikoak
 - Nazio Batuen Erakundea (1945) eta Nazio Batuen Sistema (NEak ugaritzen dira)


Nazioarteko Erakunde historikoak:

- *Rhineko Nabigaziorako Nazioarteko Batzordea*: 1815 nabigazio komertzial librea ibai bide horretatik, herrialde ezberdinak zeharkatzen dituenak.
- *Munduko Meteorologia Erakundea*: 1863, kontu meteorologikoetan lankidetzak.
- *Posta Batasun Unibertsala*: 1874, nazioarteko korrespondentzia arautzeko.
- *Nazioen Liga*: 1919, mundu bakea eta segurtasuna finkatzen saiatzeko.
- *Nazioarteko Lan Erakundea*: 1919, langileen eta enpresen ordezkariak.
- *Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorra*: 1922.

Nazioarteko erakundeen kopurua (definizioaren arabera):

Urtea	Kopurua
1914	37
1939	79
Gaur Egun	300 ggb

PRAKTIKA: MAPAK ETA EUREN MUNDU IKUSKERA



Galderak:

- *Zeintzuk dira bien arteko desberdintasunak?*

Bien arteko desberdintasuna tamainan dago, batean, herrialde garatuak nabarmentzen dira, eta bestean, berriz, herrialde azpigaratuak.

- *Zeinek irudikatzen du mundua hobeto, era objektiboagoan?*

Peters mapa da mundua hobe irudikatzen duen mapa.

- *Zein balore, interes, ideia... egon litezke bakoitzaren atzean?*

Goiko mapak iruditegi kolektiboan eragiten du eta aberatsak diren herrialdeak handiagoak direla nabarmentzen du.

Esfera bat plano batean irudikatzeko arazo teknikoak: superfizie ala forma?

Esfera bat tolesterako garaian oso zaila benetan den bezala azaltzea, eta benetako distantzia eta forma horiek distortsionatu egiten dira. Askok diote mapa horiek ez direla onargarriak.

Gainera, aipatu beharra dago mapetan ez dirudien arren Afrika Groenlandia baina 14 aldiz handiagoa dela.

4. NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN TIPOLOGIAK

IRIZPIDEA	TIPOLOGIAK
1. Osaera	Unibertsalak
	Kontinenteartekoak
	Eskualdekoak
2. Helburuak, funtzioak eta jardueraren arloak	Orokorrak
	Helburu zehatzak

OSAERAREN ARABERA:

Unibertsalak (edo eskualdez gairikoa)

- Eremu unibertsala edo globala
- Nazioarteko sistemaren estatu guztien parte-hartzerako zabalik daude
 - 1- Nazio Batuen Erakundea (NBE)
(bere erakunde espezializatuekin: Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO), Osasunerako Mundu Erakundea (OME), Energia Atomikoen Nazioarteko Agentzia (EANA) ...)
 - 2- Merkataritza Mundu Erakundea (MME)
 - 3- Nazioarteko Itsas Erakundea (NIE)

Kontinenteartekoak

- Kideak bi kontinente edo gehiagokoak
 - 1- Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (IAIE/NATO)
 - 2- Konferentzia Islamiarraren Erakundea (KIE)
 - 3- Asia-Pazifiko Ekonomia Lankidetzaren Foruma (APELF)
 - 4- Arabiar Liga (AL)

Eskualdekoak

- Eremu kontinentala edo eskualdekoa
- Irizpide geografikoen arabera mugatua (kide kopuru mugatua)
 - 1- Amerikar Estatuaren Erakundea (AEE)
 - 2- Afrikar batasuna (AB)
 - 3- Europar batasuna (EB)
 - 4- Estatu Lantinoamerikar eta Karibetarren Komunitatea (CELAC)
 - 5- Hego Ameriketako Nazioen Batasuna (UNASUR)
 - 6- Gure Amerikako Herrirentzako Aliantza Bolivartarra (ALBA)
 - 7- Karibear Elkartearen (CARICOM)
 - 8- Asia Hegoekialdeko Nazioen Elkartearen (ASEAN)

EBn zazpi kontseilu daude, eta EBren organoak izateaz gain erakundeak ere badira.

HELBURU, FUNTZIO EDO JARDUERA-ARLOAREN ARABERA

Orokorrak

- Helburu eta funtzio anitzak (alor ezberdinak)
- Lan-lerro zabalak jorratzen dituzte
 - 1- Nazio Batuen Erakundea (NBE)

(Nazio Batuen gutunak helburu nagusiak zehazten ditu: bakea eta segurtasun kolektiboa mantentzea, lankidetzaren politikoa, ekonomiko, soziala, kultural eta humanitarioa sustatzea)
 - 2- Afrikar Batasuna (AB)

(bere helburuetako batzuk: integrazio politikoa eta sozioekonomikoa; jarrera afrikarren defentsa nazioarte mailan; lankidetzaren zientifiko eta teknologikoa; segurtasuna eta bakea kontinentean sustatzea ...)
 - 3- Europar Kontseilua

Helburu espezifikoak edo mugatuak dituztenak:

- Jokabide zehatza eta espezializatuak alor politikoan, ekonomian (, militarrean (OTAN) edo defentsan, kulturean, sozialean etab.
- Batzuetan bereizketak ez daude ondo zehaztuta eta, beste batzuetan erakunde bat denboran zehar bilakatzen da bere helburu eta jardueri dagokienez.
- Lau mota nagusi identifikatzen dira, helburu/funtzioen arabera:
 - 1- Helburu ekonomikoak, komertzialak eta finantzazkoak
 - Nazioarteko Diru Funtza (NDF)
 - Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea (LPEE/OPEC)
 - Hego Amerikako Merkatu Komuna (MERCOSUR)
 - Ipar Ameriketako Merkataritza Askeko Eremua (IAME/NAFTA)
 - Karibear Estatuaren Elkarte (KEE/AEC)
 - 2- Helburu militarrek eta segurtasuna
 - Mendebalder Europaren Batasuna (MEB/WEU)
 - Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundea (OSCE)
 - Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (IAIE/NATO)
 - Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia (EANA/IAEA)
 - 3- Helburu teknikoak eta zientifikoak
 - Nazioarteko Itsas Erakundea (NIE)
 - Munduko Meteorologia Erakundea (MME)
 - Telekomunikazio Sateliteen Nazioarteko Erakundea (INTELSAT)
 - 4- Helburu sozialak, kulturalak eta humanitarioak
 - Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE)
 - Konferentzia Islamiarraren Erakundea (KIE)
 - Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO)

ADIBIDEAK:

Erakundea	Osaeraren arabera	Helburuaren arabera
Estatu Amerikarren Erakundea	Eskualdekoa	Orokorrak
Hezkuntza, Zientzia eta Kulturako Nazio Batuen Erakundea	Unibertsala	Espezifikoa (hezkuntza, zientzia eta kultura)
Afrikar Batasuna	Eskualdekoa	Orokorrak
Europako Banku Zentrala	Eskualdekoa	Espezifikoa (finantzariaoak)
MERCOSUR (Hegoko Merkatu Komuna)	Eskualdekoa	Espezifikoa (ekonomikoak)
Munduko Bankua	Unibertsala	Espezifikoa (ekonomikoak)
Europar Batasuna	Eskualdekoa	Orokorrak
Posta Batasun Unibertsala	Unibertsala	Espezifikoa (teknikoak)
Nazio batuen Erakundea	Unibertsala	Orokorra
Merkataritza Mundu Erakundea	Unibertsala	Espezifikoa (ekonomikoak)

5. NAZIO BATUEN ERAKUNDEA**Aurrekariak:**

- Nazioen Liga (botere estruktura eta erabakitze mekanismo ezberdinak zituen, eta NBE sortu zenean hainbat aldaketa eman ziren. Hemen azaldu zen garaileen boterea, Segurtasun Kontseiluan, hain zuzen ere.)

II. Mundu Gerraren testuinguruan topaketak burutu ziren bake iraunkorra lortzeko eta NBERi buruz eztabaidatzeko-

- Atlantikoko Gutuna (Ozeano Atlantikoa, 1941)
- Washintongo Adierazpena edo Nazio Batuen Adierazpena, 1942: 46 Estatu. Roosevelt presidenteak proposatu zuen Nazio Batuen terminoa.
- Mosku eta Teherango Adierazpenak, 1943: SESB, EB, AEB eta Txinako gobernuek nazioarteko erakunde bat ezartzea proposatu zuten bakea eta segurtasuna mantentzeko.
- Dumbarton Oakseko Konferentzia (1944): AEBk, EBk, SESBk eta Txinak NBERen Gutunaren lehen zirriborroa landu.

- Yaltako Konferentzia (1945): Roosevelt, Stalin eta Churchil-ek erabaki zuten zeintzuk izango ziren erakunde berriaren erakunde berriaren erabakiak hartzeko prozedurak (beto eskubidea)

Sorrera:

San Frantziskoko Konferentzia, 1945

- San Frantziskok Konferentzia (1945eko apirilaren 25ean): Nazio Batuen antolatzeko Konferentzia (51 estatu). Nazio Batuen Gutunaren 111 artikulua idatzi zituzten, lau Estatu garrantzitsuen funtsezko eskaerak errespetatuz.

NAZIO BATUEN GUTUNA

'Geuk, Nazio Batuetako herriok, honakoak lortzeko...'

Nazio Batuen Eratze-Ituna da:

- Hitzaurrea: formala, klasikoa, borondate onekoa ...
- Xedapenak 111 artikulua, xede eta printzipioetatik hasita
- Helburuak:
 - 1- Bakea mantentzea
 - 2- Estatuaren segurtasuna
 - 3- Nazioarteko harremanen demokratizazioa
 - 4- Lankidetzaren aurrerapenerako
 - 5- Ahaleginak elkartzeko helburuak lortzeko

Erakundearen xedeak (1. artikulua)

1. Nazioarteko *bakea eta segurtasuna* mantentzea
2. *Eskubide-berdintasuna eta herrien determinazioa askearen* printzipioen errespetuan oinarrituta, Nazioen artean adiskidetasun harremanak sustatu eta munduko bakea sendotzeko neurri egokiak hartzea.
3. *Nazioarteko lankidetzaren* gauzatzea bai izaera ekonomiko, sozial, kultural edo humanitarioko nazioarteko arazoetan zein pertsona guztien giza eskubide eta funtsezko askatasunen errespetua garapenera.
4. Helburu *komun* horiek erdiesteko, nazioen ahalegina bateratzeko gune gisa balio izatea.

Erakundearen printzipioak (2. artikulua)

1. Kide guztien *berdintasun subirano* printzipioa
2. Gutunaren arabera hartutako betebeharrak *fede onez* betetzea

3. Nazioarteko eztabaidak *modu baketsuan* konpondu
4. *Indarra edo mehatxua erabiltzeari uko* egin
5. Erakundeak gauzatzen duen *edozein ekintzatan laguntza* mota oro eskaini
6. Nazio Batuetako kideak diren Estatuak *printzipio hauen arabera jardun dezaten* eragingo du erakundeak
7. Estatuaren funtsean *barne-eskumeneko arazoetan esku hartzearen debekua* (VII. Kapituluaren kasuan izan ezik)

NAZIO BATUEN KIDEAK

- ***Kide diren Estatuak***

Nazio Batuen Erakundearen gaur egun 193 kide dira, eta horietatik 5ek beto eskubidea dute, hau da, gainontzeko Estatuaren erabakiaren gainetik eurek beren erabakiak hartze eskubidea.

- 1- Beto eskubidea duten Estatuak: AEB, Erresuma Batua, Errusia, Txina eta Frantzia.

- ***Estatu begiraleak***

Badira estatu-kide oso ez diren bi Estatu, hau da, eskubide guztiak ez dituztenak

- 1- Vatikanoa
- 2- Palestina

NBEaren ekintzetan parte hartzen dute, eta estatu gisan onartuak dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik

- ***Kide ez diren Estatuak***

- 1- Saharar Errepublika
Nahiz eta NBEk autodeterminazioa eskubidea (erreferendum bat egiteko) duela onartu. Sahara kolonia bat izan zen, eta Marokon martxa berdea egin eta milioika marokoar Sahararen geratu ziren. Beraz, Saharako lurraldearen kontrol efektiboa Marokok du.

- 2- Taiwan
Txinako lurraldearen menpe dagoen irla. Bertako gobernu nazionalista komunistek garaitua izan zen, eta gobernuak txinatik alde egin eta Taiwanera joan ziren.

Beraz, bi Txina bereiztu izan dira, batetik, kontinentean zegoen Txina komunista, eta bestetik, Taiwanen zeuden txinatarrak. Baina, Txinak beto eskubidea du, eta ez du Taiwan lurralde gisa ikusten.

3- Kosovo

Jugoslavia estatu komunista bat zen, eta lurralde batzuk independizatu egin ziren. Bertatik Serbiak alde egin zuen, eta Kosovoko errepublika izendatu zen. Baina, estatu askok ez dute Kosovo errepublika independentetzat ikusten, eta horien artean daude Txina eta Errusia, beto eskubidea duten bi herrialde.

Denak dira egoera nahiko gatazkatsua bizi izan duten lurraldeak, gehienetan bizi izan dira gerra ezberdinak.

NAZIO BATUEN ORGANOAK

- ***Batzar Nagusia***

Parlamentu antzea gauza bat da, non erabakiak hartzen diren. Bertan, estatu kide guztiak daude ordezkaturak, eta estatu kide bakoitzak boto bat du. Palestina eta Vatikanoren kasuan joaten dira, baina ez dute botorik ematen

- ***Segurtasun Kontseilua***

Erakunde garrantzitsua da, eta gobernua bailitzan lan egiten du. Bertan, 15 estatu daude, eta hauek txandakatuz joango dira. 15 etik 10 eskatu dira txandakatuko direnak, beto eskubidea duten 5 estatuak (Txina, Errusia, AEB, Erresuma Batua eta Frantzia) ez dira txandakatuko. NBE 5 Estatu hauei berez duten nagusitasuna onartzen zaie.

- ***Nazioarteko Justizia Auzitegia***

Tribunal bat izan arren, erakunde arbitral gisa jokutzen du, hau da, NBEko kideen arteko bitartekari lanak egiten ditu. Baina inor ez da bertara joatera behartuta izango, estatuek nahi badute soilik eramango dute arazo bat bertara.

Hala ere, aipatu NBEren Justizia Auzitegia La Hayan kokatuta dagoela, eta hainbat tribunalek osatzen dute; horien artean, aurretik aipatutako, Nazioarteko Justizia Auzitegia.

- ***Ekonomia eta Gizarte Kontseilua***

- ***Idazkari Nagusia eta Idazkaritza***

Hauteskundeak eta bilera deituko ditu, eta agintariek dituzten aginduak bideratzeaz arduratuko da.

NAZIO BATUEN SISTEMA, Nazio Batuen erakunde espezifikoak:

- Lankidetzaren arlo sozialean, humanitarioan eta kulturaren (***Nazioarteko Lan Erakundea - ILO, Munduko Osasun Erakundea - WHO, UNESCO, UNICEF, UNWOMEN***).
- Komunikazio arloan (***Posta Batasun Unibertsala, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna, Nazioarteko Itsas Erakundea, Nazioarteko Hegazkintza Zibilaren Erakundea***).
- Lankidetzaren teknikoan (***Mundu Meteorologia Erakundea, Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia - IAEA***)

- Lankidetza ekonomikoa eta finantzarioa (***Mundu Bankua – WB, Nazioarteko Diru Funtza – IMF, Nazioarteko Nekazaritza eta Elikadura Erakundea –FAO***)

8.gaia:

GOBERNU AKTORE EZ ZENTRALAK

1. TERMINOLOGIA:

Gobernu Aktore Ez Zentralak (**GAEZ**) litzateke termino formala. Hauen baitan kokatzen dira:

- Gobernu Ez Zentralak (**GEZ**) edo Eskualde Gobernuak.
Hauek (eskualde, erkidego, lander eta kantoiak besteak beste) gero eta parte hartze handiagoa dute nazioarteko agertokian.
Esan bezala, Gobernu Ez Zentralak mota askotakoak izan daitezke: Alemanian Landerrak, Espainian Erkidegoak, ... Gerora, lurralde administrazio horiek autonomia handiagoa ala txikiagoa izan dezakete; hots, eskumen ezberdinak izan ditzakete. Adibidez, Espainian, EAEn eta Nafarroan eskumen berezia dugu (itun ekonomikoa). AEB adibidez estatu federala da, zeina 50 estatuz osatuta dagoen.
- Udalerriak (**tokiko administrazioak**). Ez denak, soilik kanpo ekintzetan aritzen direnak, nazioarteko foro edo sareetan dabiltzanak.

Burutzen duten ekintzari erreferentzia egiteko ezin dugu kanpo-politika edo diplomazia burutu, hori estatuek edo gobernu zentralak burutzen baitute. Horrela, honakoak baliatu:

- Kanpo ekintza
- Paradiplomazia
- Nazioarte mailako jarduera
- Nazioarteko harremanak

2. SORRERA ETA EBOLUZIOA

Estatuetan burutzen den banaketa hori hainbat arrazoi politiko edo historikorengatik egiten da. Westfaliatik aurrera (1648) ... :

- Botere banaketa ezberdina existitzen da (eskuduntzak)
- Maila politiko eta administrazio ezberdinak eratzen dira: arrazoi etniko, kultural eta abarragatik. Maila hauek simetriko edo asimetrikoak izan daitezke, adibidez.
- Estatu forma ezberdinak (bateratua, eskualdekoa, federala ...).
 - Gobernantza: maila anitzeko gobernantza. Honek adierazten du boterearen banaketa nazioartean.

- Eskumen banaketa prozesu bikoitza: barne mailan (autonomia gradu ezberdinak) eta kanpo eremuan (erregimen transnazionalak eta integrazio prozesuak)
- Subiranotasun kontzeptuaren definizioari buruzko eztabaida (agintea eta boterea banatzen eta partekatzen dira).

Erdi mailako administrazioak edo GEZ eratzen dira. Hauek, oso anitzak dira **hainbat faktore** direla medio:

- Tradizio historikoa
- Lurralde eremua
- Gaitasun ekonomioak: batzuk badute baina bestetziek beren kabuz bilatu beharra dute hori
- Hizkuntza edo kultura nortasuna
- Biztanleria
- Botere publikoak

Orokorrean, gaitasun edo ezaugarri horiek dituzten GEZak nabarmendu egiten dira. Eta horiek :

- Autonomia politiko zabala
- Eta eskumen legislatiboa dituzte

Oro har, hauek izaten dira kanpo ekintza burutzen dutenak.

Adibidetzat, honakoak dira eskumen hori dutenak:

- Belgikako eskualdeak
- Alemaniako landerrak
- Kanadako probintziak
- Suitzako kantonamenduak
- Espainiako erkidegoak
- AEBtako estatuak

GEZ batzuek, **nazioarteko jarduerak** burutzen dituzte (hots, kanpo ekintza).

- XX.mendetik aurrera:
 - Suitzako kantonamenduek nazioarteko itunak sinatu ahal dituzte
 - Quebec ordezkariak zabaltzen hasi zen atzerrian (1882an lehena, Parisen)

- XX.mendean (II.MGren ostean bereziki): GEZen kanpo ekintzaren fenomenoaren hedatu egiten da, bereziki estatu deszentralizatuetan eta federaletan.
- 70 eta 80.hamarkadetatik aurrera fenomenoak kontinente guztietako gerrialde ugarietara iristen da (Australia, Hego Afrika, Txina, Latinoamerikako herrialdeak ...)

3. KANPO-EKINTZAREN ZERGATIAK

1) EKONOMIKOAK:

- GEZek merkatuak bilatzen dituzte euren produktuentzat (esportazioa)
- Atzerian euren gaitasun ekonomikoak sustatzen dituzte (industria, zerbitzuak, azpiegiturak, kokapena geografikoa ...)
- Inbertsioa erakartzen saiatzen dira
- Euren eskumenen kanpoko alderdia garatzen dute (turismoa, hezkuntza, kultura, teknologia ...)

2) KULTURALAK:

- Hizkuntza eta kultura propioak dituzten lurraldeetako GEZak euren proiektzio nazioartean sustatzen dute
- Gutxiengo hizkuntzak dituzten GEZen arteko aliantzak euren defentsarako nazioarteko instituzioen aurrean

3) POLITIKOAK:

- GEZek onarpena nazioartean bilatzen dute
- Nortasun nazional nabaria duten lurraldeetako GEZek (edota euren botere politikoa handitzeko, burujabetza gehiago edo independentzia lortzeko nahiak dituztenak), gakotzat hartzen duten nazioartean euren buruak proiektatzea

4. GAEZen NAZIOARTEKO PARTE-HARTZEAREN TIPOLOGIAK

1) Bidaiak, bisitak eta promoziorako jarduerak:

Beste aktore batzuekin harremanak ezartzeko egiten dira. Baliagarriak dira elkarlana formalizatzeko intereseko arloetan.

- Eskualdeetako lehendakarien bidaiak atzerrira
- Gaitasun ekonomikoak, kulturalak, turistikoak atzerrian sustatu ...

2) Kanpo ordezkariak zabaltzea:

Presentzia iraunkorra izaten da beste herrialde batzuetan. Hauen funtzioa gobernuekin loturak indartzea, ekintza promozionalak sustatzea eta abarra dira.

- Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak: Madril, Brusela (EB), Mexiko DF, Buenos Aires (Argentina-MERCOSUR), Santiago de Chile, Bogota (Peru, Kolonbia eta Txile), Nueva York (AEB).
- Quebecek 30 bulego ditu atzerrian

3) Nazioarteko akordioak sinatu:

Elkarlanerako hitzarmenak beste gobernuekin, nazioarteko erakundeekin ... Horrela, lankidetzak sustatzen da arlo ezberdinetan (ekonomia, kultura, turismoa, hezkuntza, teknologia, ingurumena ...)

- Katalunia: Galesekin, FAOrekin ...
- Quebec eta Brasil
- Kanariar Uharteak eta Senegal
- Euskadi: Sao Paulo, Kuba, Txile ...

4) Eskualdeen arteko lankidetzarako elkarteak

GEZen erakundeak elkarlana bultzatzeko, arazo komunak jorrazteko, euren interesak defendatzeko eta abarrerako elkarteak sortzen dituzte.

- Periferiako eta Itsasaldeko Eskualdeen Konferentzia / Conference of Peripheral Maritime Regions of Europe (CRPM/CPMR)
- Legegintza Aalmena duten Europako Eskualdeen Konferentzia (REG LEG)
- Europar Eskualdeen Asanblada (ARE)

5) Herrialde mugakideen arteko lankidetzak:

Honen oinarrian eskualde mugakideen arteko harremanak eta akordioak daude.

- Bi aldekoak:
 - o Galizia eta Ipar Portugal
- Alde anitzetakoak:
 - o Pirinioetako Lan Elkarrekin (CTP)
 - o EURES TransTiroliak (Tirol, Südtirol, Graubünden)

6) GEZen mundu sareak:

Munduko herrialde ezberdinetako GEZak elkarlana bultzatzeko sortzen dira; interes komunak daudenean, esperientziak partekatuz, baterako planak gauzatzeko ...

- Tokiko Agintek sare Informatiboa Sozietaterako: Eskualdeak (Euskadi, Valentzia, Carintia, Madeira, Tosacana ...) eta udalerrak (Sao Paulo, Shangai ...)
- Eskualdeko Gobernuen Sare Garapen Iraunkorrerako: Euskadi, Katalunia, Gales, Flandes, Western Cape, Chaco, Mendebaldeko Java ...

7) Garapenerako lankidetzak bultzatzeko Hegoaldeko herrialdeetako:

Iparraldeko GEZen parte-hartzea garapenerako proiektuetan Hegoaldean. Iparraldeko GEZ laguntzen diete hegoaldekoak.

Urteroko kontribuzio finantzarioa aurrekontu publikoetan.

- Autonomia erkidegoak, Flandes, Valonia, Quebec ...

8) Arreta eta loturak kanpoan dauden herritarrekiko

Emigrazioaren ondorioz kolektiboak eta elkarrekin eratu dira kanpoan (euskal etxeak, galiziar zentroak ...)

GEZek elkarrekin harremanak mantentzen dituzte eta dirulaguntzak ezartzen dira euren jarduerak sustatzeko.

- Kanpoko erkidegoen lege autonomikoak ("Ley de comunidades Montañesas o Cántabras asentadas fuera de Cantabria", "Ley de la Extremidad" ...)
- Euskal Kolektiboen Mundu Kongresuak + 162 Euskal Etxe daude munduan

9) Presentzia eta parte-hartzea Europar Batasunean

Historikoki: Europar GEZen eskaria EBn instituzioetan presentzia gehiago izatekoa izan da.

Eskualde horien parte-hartzerako bide ezberdinak daude; hala nola:

- Ordezkaritzak edo bulegoak Bruselan
- Eskualdeen Batzordean parte hartzea (EBn instituzio bat da)
- Eskualde presentzia estatuaren ordezkartzan EBn Kontseiluan (Ministroen Kontseiluan): herrialde batzuk bakarrik daude; Belgika, Alemania, Austria, Erresuma Batua, Portugal eta Espainia.

9. gaia:

AKTORE TRANSNAZIONALAK

9.1. GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK (GKE)

1. TERMINOLOGIA:

Genero et rol nabarmenagoa jokatzen dute nazioarteko gizartean. Asko dira, eta askotarikoak beren helburuei, baliabideei eta estrukturei dagokienez (haien artean GGKE dugu).

Hauek, nazioarteko aktoreen sailkapenean, honako kokapena dute:

- Estatuarteko Gobernuz Kanpoko Aktoreak (EAGKA) > Indar transnazionalak

2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK:

Elkarteak edo taldeak dira, herrialde ezberdinetako (gehienez hiru) partikularrek (norbanakoak edo kolektiboak) osatzen dituztenak modu iraunkor batean, irabazi-asmorik gabekoak, eta nazioarteko irismena dutenak.

Ezaugarri komunak:

- Jarduerak denboran zehar jarraipena izatea (EZ koiunturala)
- Izaera pribatua: hiritarren ekimena modu kolektibo batean (EZ da gobernu arteko itun baten ondorioz sortzen)
- Kideak herrialde ezberdinetakoak dira (bazkideen nazionalitate askotarikoak)
- Irabazi asmorik gabekoak (EZ dute irabazi ekonomikorik bilatzen, baizik eta onura publikoa)
- Normalean egitura federatiboa
- Nazioarte mailako jarduera

ECOSOCen irizpideak:

- Gutxienez bi urteko bizitza
- Egoitza finkoa
- Konstituzio bat demokratikoki adostua
- Kide guztiak ordezkatzeko dituen estruktura
- Gardentasuna
- Erabakiak hartzeko prozesu demokratiko eta gardenak

GKEen kopurua (irizpide mugatua):

Urtea	Kopurua
1909	176
1976	2.500
Gaur egun	5.000 ggb

GKEN sinesgarritasun arazoa:

- Gakoa: irabazi asmorik ez
- Euren jarduerarako baliabide finantzarioak behar dituzte (ordea)

GKEN sinesgarritasuna euren baliabideen iturriekin lotuta dago.

Finantzazioa:

- Baliabide pribatuak (kuotak, donazioak ...)
- Botere publikoak (gubernuak, foru aldundiak, udalak ...)
 - o Ordea, kontuz: finantzazio publikoak ekar dezake GKEak botere publikoen menpean egotea eta auren autonomia galtzea.
- Eta nazioarteko erakundeen diru laguntzak

3. SORRERA ETA EBOLUZIOA:

XIX. mendean agertu → eta XX. Mendean garatu ziren

- Aurrekari historikoak: elkarte erlijiosoak (ospitaleko ordenak, karitatezko erakundeak ...)
- XIX. mendetik aurrera elkarte pribatuak (botere publikoekin ez lotuta) agertzen dira injustizia sozialei aurre egiteko (Salbaziorako Armada Londresen 1865ean, Caritas Alemanian 1987an...)
- Gurutze Gorria Nazioarteko batzordea (Geneva, 1863): gerra egoeretan nazioarteko zuzenbide humanitarioa aplikatzeko (Genevako Konbentzioa)

XX. mendean helburu anitzak dituzten erakundeak eratzen dira:

- Gerren/gatazka armatuen ondorioei aurre egiteko (presoen tratuak, desagertuen bilaketa, errefuxiatuen arreta ...)
- Giza eskubideen defentsan (atxilotuen tratuak, torturen salaketa, egoera eta baldintzak kartzeletan, berme juridikoak ...)
 - o Amnesty International (Londres, 1961)
- Ingurumenaren defentsan (munduko egoera ekologikoa salatu, babes neurriak ...)
 - o Greenpeace International (Vancouver, 1971, froga nuklearren kontra)
- Hirugarren Munduan bizi-baldintzak (injustizia sozialen inguruko sentsibilizazioa, babesgabeko biztanleak ...)

4. TIPOLOGIAK:

Tipologia ezberdinak bereizten dira jarduera arloaren arabera:

1. *Laguntza humanitaria*

- Gatazka armatuetan eta gerra egoeretan zuzenbide humanitarioen aplikazioa bermatzea (zaurituen eta presoen tratu egokia, desagertuen bilaketa ...)
- Premiazko laguntza humanitaria sustatzea gatazka belikoetan, hondamendi naturaletan, eta abarretan (oinarrizko elikadura, laguntza medikoa, errefuxiatuen esparruak, kaltetuei arreta ...)
 - Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Federazioa
 - Mugarik Gabeko Medikuek

2. *Ingurumenaren defentsan*

- Ingurumenaren egoera larriak salatzea (kutsadura, kontrolik gabeko isuriak, hondakin nuklearrak, basoen esplotazio masiboa, deforestazioa, desertifikazioa ...)
- Aginteen aurrean presioa egitea eta iritzi publikoa kontzientziaztea naturaren babesarako neurriak hartzeko (ingurumen legiazioa, CO2 emisioak, transnazionalen jarduera kontrolatzea ...)
- Froga nuklearren salaketa eta horren ondorioak ingurumenean
- Kanpainak eta ekintza zuzenak salatzeko
 - Greenpeace International
 - Lurraren Lagunak/Friends of the Earth International

3. *Giza Eskubideak Sustatzea*

- Behaketa misioak, sentsibilizatorako kanpainak eta giza eskubideen gainerako txostenak
- Giza eskubideak urratzen dituzten gobernuak edo bestelako enteak salatu (detenituen tratuak, torturak, berme juridikoen eza, egoera kartzeletan, judizioz kanpoko exekuzioak, heriotza zigorra ...)
- Aginteei presioa eragitea preso politikoen epaiketa zuzenak eta inpartzialak bermatzeko.
 - Amnesty International (AI)
 - Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa (GENF)

- Torturaren Kontrako Mundu Erakundea (TKME)

4. Garapenerako laguntza (GGKEak)

- Munduan dagoen desoreka ekonomiko eta sozialen inguruko sentsibilizazioa
- Garapen lankidetzarako funtsa ofizialak bideratzea (instituzio publikoen aurrekontuen %0,7)
- Sustapen finantziario eta tekniko Hegoaldeko garapen proiektuetan
- Kooperanteak bidaltzea garapen ekonomiko eta sozialerako proiektuetan lan egiteko
 - Ayuda en Accion/Action Aid Internazioanl
 - Oxfam International

5. Bestelako ekimen anitzak

- Generokoak, sindikalak, profesionalak, erlijiosoak, kulturalak, herrien eskubide kolektiboak ...
 - Emakumeen Nazioarteko federazio Demokratikoa (ENFD)
 - Itun Indiarren Nazioarteko Kontseilua (IINK)
 - Kazetarien Nazioarteko Federazioa (KNF)
 - Musikarien Nazioarteko Federazioa (MNF)
 - Pen International/Idazleen Nazioarteko Elkartea
 - Elizen Mundu Kontseilua (EMK)

9. gaia:

AKTORE TRANSNAZIONALAK

9.2. GIZARTE MUGIMENDU TRANSNAZIONALAK

Berez nahikoa baztertuta daude nazioarteko harremanen ikerketan. Maiz nahastu egiten ditugu ONG edo GKEkin (hala nola Greenpeace). Mugimendu feminista edo La Via Campesina lirateke adibide.

- Hauen arteko ezberdintzea zaila izaten denez; adibideak: Greenpeacearen egoitza finkoa da (Vancouverren) eta Emakumeen Mundu Martxarena aldakorra.
- Greenpeace mundu osoan antolatuta dago Greenpeace moduan. EMM, ordea, hainbat talde autonomoz dago eratuta (Bilgunea kasu).

1. TERMINOLOGIA ETA EZAUGARRIAK:

Gizarte Mugimendu Transnazionalak (GMT) / Transnational Social Movements (TSM) EDO
Gizarte Mugimendu Globalak.

Nazioarteko aktoreen sailkapenean:

- Estatuarteko Gobernu Kanpoko Aktoreak (EAGKA) > Indar transnazionalak

GMTen EZAUGARRIAK:

Osaera:

- Erakunde egonkorak
- Sareak
- Foroak
- Koordinakundeak

Hauen baitan (GKE?) kokatuko genituzke aldaketa politiko eta sozioekonomikoak bilatzen dituzten eragileak, maila lokalekoak zein globalekoak.

Mota askotarikoak dira: helburuaren, jardueraren, bidearen, antolakuntzaren eta barraren arabera.

Adibide batzuk:

- Emakumeen Mundu Martxa EMM
- La Via Campesina LVC
- Merkataritza "Aske" eta Mundu Merkataritza Erakundearen kontrako Herrien Ekintza Globala
- Global Call to Action against Poverty (GCAP)
- Red de Mujeres Transdormando la Economía (REMTE)
- Grito de los Excluidos Continental
- Jubileo Sur / Jubilee South
- Atzerriko Base Militarrak Abolitzeko Mundu Sarea

2. GMTak NAZIOARTEKO AKTORE GISA:

Hasiera batean nazioarteko aktoreak zein ziren definitzeko ikuspuntu juridiko bat baliatzen zen. Ordea, gerora, ikuspegi funtzionala.

- 1) Baliabideak mobilizatzeko gaitasuna Nazioarte mailan:
 - Informazioa zabaldu eta irismena iritzi publikoan
 - Sareak sortu eta kanpainak atera
 - Topaguneak (Munduko Foro Soziala, goi-bilera paraleloak, goi-bileren kontrako deialdiak/counter-summits ...)
 - Mobilizazio estrukturalak eratu

- 2) Nazioarteko agendan eragina izateko gaitasuna:
 - Gai sozialak mahai gainean jarriaz (pobrezia, ezberdintasuna, ingurumena ...)
 - Kontzeptu berriak (“bidezko merkataritza”, “garapen iraunkorra”, “zor ekologikoa”, “elikadura burujabetza”, “genero indarkeria” ...)

- 3) Bestelako aktoreen estrategietan eragina izateko ahalmena:
 - Estatuek, multinazionalak NEek, GEZek ... GMTen aldarri batzuk kontutan hartzen dituzte
 - NEtan parte hartzeko bideak zabaldu dira (mugak eta arazoekin)

- 4) Nolabaiteko autonomia izatea

3. AURREKARI HISTORIKOAK ETA GARAPENA:

Aurrekari historikoak (XIX.mendean)

Esaten dugu 80.hamarkadan hedatu zirela. Ordea, aurrekariak badaude.

- XIX.mendean emakumeen sufragioa lortzeko kanpaina transnazionala
- Esklabutza deuseztatzeko kanpaina (Ingalaterra, AEB)

XX:mende amaieran garatzen dira (80'-90'). Arrazoiak:

- Nazioarteko aktore pribatuek gero eta garrantzia handiagoa
- Interdependentzia mundu mailak (ekonomikoa, informatiboa)
- Globalizazioa eta lotutako prozesuak (informazio teknologien erabilpena)
- Arazo globalak jorratzeko premia

- Birplanteatzen dira eztabaida politiko, sozialak ... neoliberalismoaren aurrean (Gerra Hotzaren ondoren)

4. GAUR EGUNGO LAN LERRO NAGUSIAK:

- 1) Merkatu globalarekiko kritika: nazioarteko merkataritza eta kapital merkaturen arauak kritikatzeko dituzte.
 - Bidezko merkataritza, finantza fluxuen kontrola, arauak, gardentasuna, zergak finantza transakzioei ...
 - o Attac
- 2) Enpresa transnazionalerako aurkakotasuna: Haien jardura eta funtzionamendua kritikatzeko dituzte
 - Kontrol gehiago eskatzen dute, erantzukizun soziala, arauak eta kontrolak
- 3) Giza eskubideen defentsa: eskubide politiko eta zibilez gai ekonomiko, sozial eta kulturalak babesten dituzte. Era berean, aktibistek jasaten duten jazarpena salatzen dute.
 - Lan arauak, migranteen bizi baldintzak, herri indigenak eta eskubide kulturalak, hizkuntza eta gutxiengoaren kulturalak ... Arreta berezia baztertutako sektoreei.
- 4) Feminismoa: lan lerro propioa, eta gai zeharkakoa gainontzeko arloetan
 - Genero ezberdintasuna gaintzea (pobreziaren feminizazioa, emakumeen kontrako indarkeria, parte hartze publikoa, lan banaketa berri bat)
 - Genero ikuspegia politika publikoetan sartzea, NEren programetan, gizarte mugimenduetan
- 5) Ingurumena: kapitalismoaren ondorioz sortutako kalteak salatu
 - Proposamenak: "garapen iraunkorra", "zor ekologikoa", "elikadura burujabetza" ...
 - Lurra eta lurraldea berreskuratzeko indigenen borroka, adibidez
 - o La Via Campesina
- 6) Garapenerako lankidetzak:
 - BPG %0,7 garapenerako laguntza ofizialean
 - Lankidetzak kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea (eredua aldatzea)
 - NEren Milurtekorako Garapen helburuak (MGH) lortzeko neurriak sartu
- 7) Gerra eta militarismoaren kontrako mugimendua:
 - Armaden desagerpena
 - Gerra inperialisten salaketa
 - Gerraren negozioaren salaketa

5. GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO MUGIMENDUAK:

1) Sorrera (80'-90' hasieran)

- Globalizazioaren analisi kritikoak burutu zituzten: diagnostikoa
- Mobilizatorako deialdi globalak: goi-bilera ofizialen kontrako bilerak
 - o NDFren (Fuerza de Defensa Nacional) kontrako protestak (Berlin, 1988)

2) Goi-bilera paraleloaren fasea eta protestaren zikloa (90')

- GKE kritikoek eta GMTek bat egiten dute
- Goi-bilera paraleloak eta foro globalak burutzen dituzte
- Horrela, hausnarketa kritikorako foroak sortzen dira, argitalpenak eta abarrek.
- o Lurraren Goi Bileraren Foro paraleloa (Río de Janeiro eta Johannesburgo, 1992)
- o Foro Las Otras Voces del Planeta (Madrid, 1994)
- o Primer Encuentro Intergaláctico contra el Neoliberalismo (1996, zapatisten deialdi globala)
- o Herrien Ekintza Globala (Ginebra, 1998; GAMen 1.koordinakundea)
- o "Beste Mundu Bat Posible Da" Topaketak (1999, ATTACek deituta)
- o "Mundua ez da merkantzia" protesta (Seattle, 1999, MMEaren kontra)
- o "Beste Davos Bat" Foroa (1999, Mundu foro ekonomikoaren paraleloa)

"Globalizazioaren aurkako mugimendua" hitza finkatzen da (*The Economist*)

- Era berean, "altermundismo", "alterglobalizazioa", "kapitalismoaren kontrakoa" ...

Une horretan, estrategia eta bide ezberdinak bereziten hasi ziren:

- G8 ko goi-bileraren kontrako protestak (Genova, 2001)

Errepresioa eta mugimenduen kriminalizazioaren areagotzea.

3) Proposamen zikloa (2001-2008)

- Internet eta kontra-informazioa gero eta gehiago erabiltzeari ekiten zaio.

- Horrela, alternatiba sozioekonomikoak landu, programak, analisisetan sakondu eta abar egiten da.
- Baztertutako kolektiboak eta sareak aktibismo eurozentriko/euroatlantikoan integratzeko ahalegina egiten da
- Arazo lokalak, eskualdekoak eta globalak lotzeari ekiten zaio
 - o I Munduko Foro Soziala (Porto Alegre, 2001)
 - o I Europar Foro Soziala (Florentzia, 2002)Hurrengo urteetan areagotu egiten dira eskualdeko foroak eta gaitz foroak.

4) **Globalizazioaren aurkako borrokaren bigarren zikloa (2008tik aurrera):**

Kapitalismoa zalantzan jartzeari ekiten zaio.

- o 2011ko protestak (Grezia, Arabiar Udaberria, Indignados, Occupy ...)

GAMaren ardatza Latinoamerikatik Mediterraneora:

- o Azken MFS (Tunis 2013, 2015; Montreal, 2016; Salvador de Bahia, 2018)

9. gaia:

AKTORE TRANSNAZIONALAK

9.3. ENPRESA TRANSNAZIONALAK

1. TERMINOLOGIA

Enpresa transnasionalek (ETN) eragin nabarmena dute nazioarteko sistema ekonomikoan. Hauek enpresa multinazionalak eta enpresa transnazonialak izaten dira.

Nazioarteko Aktoreen Sailkapenean:

→ Estatuarteko Gobernuz Kanpoko Aktoreak (EAGKA) > Indar transnazonialak

Adibideak:

- British Telecom
- Philips Morris
- Nestlé
- Dow Chemical Co.
- Crédit Agricole
- Microsoft Corporation
- Toyota
- Exxon Mobil (Standard Oil)
- ING Group
- Siemens

ETNkin lotutako beste kontzeptu batzuk:

- *Zuzeneko inbertsio atzerritarra (ZIA):*

Pertsona natural batek edo pertsona juridiko batek (erakundeak, enpresa publikoak, pribatuak) atzerriko herrialde batean egiten duen kapital inbertsioa (%88a ETNek)

- Jatorria: 1980ko hamarkada hedatzen hasi zen
- Jarduera: produkzio zentroak sortzen dituzte, tokiko enpresetan parte hartu, filialak eratu ...
- Helburuak: merkatu handiagoak edo berriak, baliabide naturalak, ekoizpena merkatzea ...

- *Internazionalizazioa:*

Atzerriko merkatuak bilatzea, batez ere, suspertzen ari diren merkatuak: gobernuek fondo publikoen bidez sustatzen dute barruko langileentzat lanpostuak sortzen dituelako eta atzerriko herrialdeen garapena bultzatzen duelako.

- *Deslokalizazioa:*

Jarduerak eta lanpostuak atzerriko enpresa batera lekualdatzea (herrialde garatuen desindustrializazioarekin lotuta); abantaila konparatiboa (hots, lan kostu txikiagoak) bilatze aldera. Honekin bai jatorrizko herrialdeetan baita hartzaileetan lan merkatu malguak eta soldata baxuak bultzatzen dira.

- *Kalifikazio edo rating- agentziak*

Finantza inbertsioen arriskua neurtzen dute. Mailegu-emaileen gaitasunak eta interesak balantzan jartzen dituzte bono edo kupoiak epean ordaintzearekin; kapital printzipalaren amortizaziorako.

- Jatorria: XIX.mendearen bigarren erdian AEBn. 1980 hamarkadan garrantzia hartzen dute.
- Jarduera: inbertsio proiektuak kalifikatzen dituzte mailegu emaileentzat, analisi ekonometrikoak eta politikoak baliatuz.

Ad: "Hiru Handiak" (merkatuaren %94): Standard&Poor, Moody's eta Fitch (AEB)

2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Mundu kudeaketa-unitate baten bidez, interesak dituzte eta herrialde ezberdinetan jarduten dute, horietako bakoitzaren baldintza ekonomikoetara, sozialetara eta legaletara moldatuz, euren irabaziak maximizatzeko helburuarekin.

Enpresa transnazionalak nazioarte mailan funtzio bat betetzen dute, eta oso argia da betetzen duten funtzio hori.

Ezaugarri komunak:

- Herrialde ezberdinetan jarduten dute, formula ezberdinak erabiliz (enpresa-taldeak, filialak, sukurtsalak ...)
- Kudeaketa unitateak, jarduera-logika komun bat jarraituz (jatorrizko enpresak inbertsioak bideratzen ditu beste herrialdetan eta kudeaketa elkar-lanean burutzen du)
- Irabazi-asmoa dute (ekoizpen-kostuak murriztu eta irabaziak maximizatu mundu-estrategia bat erabiliz)

3. SORRERA ETA EBOLUZIOA

Euren sorrera kolonizazioarekin lotuta dago, batez ere XVIII. eta XIX. mendeetan: enpresek euren jarduerak zabaltzen dituzte 'merkatu nazionaltzat' jotzen duten lurraldeetara.

- Garapen zientifiko-teknikoak zein ekoizpena ea komertzializazioa gehitzeak, filialen bidezko enpresen hedapena ekarri zuen beste herrialdeetara.

- Deskolonizazioarekin batera enpresa horiek atzerritartzat hartzen hasi ziren emantzipatutako herrialdeetan.

II. Mundu Gerraren ostean enpresen transnazionalizazioaren fenomenoak finkatzen da eta egungo ezaugarriak hartzen ditu.

- Globalizazioarekin ugaritu dira eta garrantzizko rola nazioarteko harremanetan
- Gaur egun mundu mailako pilaketa eta hedapen kapitalistan eragile nagusiak dira.

4. ERAGINA NAZIOARTE MAILAN

Industrian, zerbitzu-sektorean, nekazaritzan eta finantza-arloan nabarmentzen dira.

Nazioarteko ekonomian eragina izateko gaitasun handia:

- Erreserba energetikoak kontrolatzen dituzte
- Lehengai iturriak kontrolatzen dituzte
- Teknologian eta ikerketa arloetan nagusitzen dira (asko inbertitzen dute ikerketa teknologikoan)
- Sektore estrategikoak bereziki zaintzen dituzte
- Parte-hartze altua mundu ekoizpenean
- Inbertsiorako gaitasun nabarmena ...

Nazioarteko politikan ere bai:

- Merkataritza askeko itunen sustatzaile nagusiak dira
- Euren lobbiak ugariak eta garrantzitsuenak dira
- Militarizazioa
- Nazioarteko arbitraje auzitegiak; auzitegi pribatuak dira, eta Estatuak ez daukate inolako parte hartzerik. Auzitegi hauek enpresa transnazional eta Estatu baten arteko arazoak konpontzeko erabiltzen dira, hau da, hauek dira erantzukizuna dutenak.

Multinazional nagusiak



ETN handienak (diru-sarreraren arabera)

	Enpresa	Ingresos (milionez \$)	Benefizios (milionez \$)	Pais	Sektorea
1	Royal Dutch Shell	484.489	30.918	Holanda	Hidrokarburoak
2	Exxon Mobil	452.926	41.060	EE.UU.	Hidrokarburoak
3	Wal-Mart Stores	446.950	15.699	EE.UU.	Grandes superficies
4	BP	366.463	25.700	Reino Unido	Hidrokarburoak
5	Sinopec Group	370.214	9.453	China	Hidrokarburoak
6	China National Petroleum	362.338	16.317	China	Hidrokarburoak
7	State Grid	259.142	5.678	China	Electricitatea
8	Chevron	245.621	26.895	EE.UU.	Hidrokarburoak
9	ConocoPhillips	227.272	12.436	EE.UU.	Hidrokarburoak
10	Toyota Motor	225.364	3.591	Japon	Automobilak
11	Total	221.588	17.099	Frantzia	Hidrokarburoak
12	Volkswagen	221.551	21.426	Alemania	Automobilak

Multinazional handienak (kanpo salmenten arabera)



Iturria: UNCTAD, 2013

ETN handienak (diru-sarreraren arabera)

Enpresa	Herraldea	Lanpostuak	Sektorea
1.Wal-Mart Stores	AEB	2.200.000 (=)	Merkataritza
2.Sinopec Group (+)	Txinako H.E.	897.488 (-)	Petrokimika
3.Royal Dutch Shell (-)	Holanda	94.000 (+)	Hidrokarburoak
4.China National Petroleum	Txinako H.E.	1.636.532 (-)	Hidrokarburoak
5.Exxon Mobil	AEB	83.700 (-)	Hidrokarburoak
6.British Petroleum	Erresuma Batua	84.500 (-)	Hidrokarburoak

Iturria: "Fortune global 500", Fortune, 2015

ETN handienak Espainiako Estatuan

	Enpresa	Ranking (global 500)	Ingresos (M€)	Beneficios (M€)	Sede
1	Santander	44	117.438	7.440.2	Madrid
2	Telefónica	82	87.322	7.512.6	Madrid
3	Repsol	90	81.122	3.048.5	Madrid
4	BBVA	186	51.021	4.176.5	Bilbao
5	Iberdrola	238	44.065	3.899.6	Bilbao
6	ACS	249	42.665	1.337.6	Madrid
7	Gas Natural Fenosa	376	29.369	1.847.3	Barcelona
8	Mopre	378	29.254	1.338.0	Madrid

Munduko unitate produktiboak konparatuz:

Lehenengo 50ak:

- 38 Estatu (BPGren arabera)
- 12 enpresa (salmenten arabera)

Herralde askoren aberastasuna multinazional askoren salmenta-gaitasuna baino txikiagoa da.

Gertaera historikoak eta multinazionalen esku-hartzeak (Adibideak):

Compagnie Universelle du Canal de Suez:

- Suez kanaletik nabigazioa kontrolatzen zuen
- 1956an Egiptok nazionalizatu zuen, nazioarteko krisia sortu zuen

United Fruit Company (UFCO), egun Chiquita Brands:

- Latinoamerikako herrialdeetako jarduera ekonomikoa monopolizatzen zuen
- Adibidez, Guatemalan Jacobo Arbezen kontrako estatu-kolpea (1954) lagundu zuen

Internazional Telegraph and Telephone Company (ITT)

- Txilen Salvador Allende hautatzea (1970) geldiarazten saiatu zen.
- Oposizioa eta estatu-kolpe militarra (1973) lagundu zituen.

Union Carbide:

- Enpresa kutsatzaileen kokapena Hirugarren Munduko herrialdeetan.
- Gas-ihesa istripua (pestizidak) Bhopal-en (India, 1984), 8.000 hildako berehala eraginez eta 20.000 hurrengo urteetan

NAZIOARTEKO GIZARTEAREN OINARRIZKO PROZESUAK

Orain arte esan dugunaren arabera, nazioarteko sistemaren osagaiak *aktoreak*, *egiturak* eta *prozesuak* dira. Azken gai hauetan *prozesuei* ekingo diegu, zeinak aurrekoekin alderatuz, prozesu dinamikoak diren eta aldaketa sortzeko gaitasuna duten.

10.gaia:

GATAZKAK ETA GERRAK

1. GATAZKEN ETA GERREN ITURBURUAK

Gatazka sistema internazionalaren aktoreen arteko interakzio nagusi bat da; bere muturreko adierazpena *gerra* da.

Gerra Diskordia mailarik altuena	Gatazka Interes bateraezinak (indarkeria bai/ez)	Lankidetz	Integrazioa
--	--	------------------	--------------------

- Gatazka eta gerraren arteko ezberdintasuna intentsitatean datza. Izan ere, Gatazkan interes bateraezinak nagusitzen diren arren, lankidetz

1) Baliabideen edo ondasunen gabezia:

Ondasun urriengatik borrokan oinarritzen da. Izan ere, teorikoki, alde baten irabaziak bestearen galera dakar ("batuketa zero

- Edateko ura izatea
- Lurralde estrategikoen kontrola (itsasarteak, uharteak, garrantzia militarra duten puntuak ...)
- Itsasora sarbideak *Saharan Maroko*
- Mugen trazaketa
- Baliabide naturalen kontrola (lehengaiak, petrolio

2) Balore, interes edo helburu bateraezinak:

Identitateen gaineko borroka izaten dira.

- Nazionalitatea, jatorri etnikoa eta identitateak
- Ideologia eta jarrera politikoak, *Gerra Hotzeko Komunismoa vs. Kapitalismoa*
- Erlijioa

- Baloreen sistema (kulturalak, sozialak ...)
- Gutxiengoekiko jarrera (etnikoak, kulturalak, erlijiozkoak ...)

Maiz, ordea, bi faktoreak nahasten dira:

Ondasunen gabezia + Interes bateraezinak

2. GATAZKEN DEFINIZIOA ETA LOTUTAKOKONTZEPTUAK

GATAZKA:

Egoera bat da non aktoreek interes bateraezinak dauzkaten, elkarren aurka egotera bultzatzen dituztenak (bai ondasun urrien jabetzagaratik baita balore bateraezinak gauzatzeagaratik), euren helburuak lortzeko indarra ere erabiltzera helduaz.

Beste kontzeptu batzuk:

- *Gatazka katea:*
 - o Gatazkaren jatorrian zergati bat izaten da; ordea, konplikatu egiten da alde (edo aktore) eta faktore gehiago sartzen direlako. Hala nola, atzerriko esku-hartzea.
- *Aldeek euren interesak defendatzen dituzte:*
 - o Bitarteko ezberdinak baliatuz: lanabes diplomatikoak, ekonomikoak, militarrik ...
- *Gatazka denboran zehar bilakatzen da:*
 - o Faktore askotarikoen arabera (Aldeen jarrerak eta jokabideak, negoziazioak, indarraren erabilera ...)

Horrela, gatazka garatu egiten da aldaketak izaten:

- Ekintza diplomatikoak eta negoziazioak (akordioak)
- Epe luzeko gatazka bihur daiteke
- Tentsio eta krisiaren faseak
- Gatazkaren fase armatua (gerra egoera)
- Behin gerra hasita, aldagai askok parte hartzen dute eta eboluzio ezberdinak gauzatu daitezke

3. GATAZKEN TIPOLOGIAK

Gatazkak sailkatzerakoan, irizpide ezberdinak baliatu ditzakegu:

Helburuen arabera	Erabilitako bitartekoen arabera	Aktore edo aldeen izaeragatik	Irismena
Baliabideengatik	Gatazka baketsuak	Estatuen arteko gatazkak	Bi aldeko gatazkak
		Gatazka transnazionalak	
Baloreengatik	Indarkeriazko gatazkak	Gatazka supranazionalak	Gatazka aldeaniztuna

1) Bilatzen diren helburuen arabera

- Baliabideengatik:

Baliabide materialak, giza baliabideak edo antolatzaileak (instituzioak, Gobernua, armada ...) lortzeko.

- Galerak / irabaziak balorazioa. Baliabideak kuantifikagarriak direnez, errazago konpon daitezke.

- Baloreengatik

Baloreak edo ideiak defendatzeko, inposatzeko edo aldatzeko (arrazoi etnikoak, erlijiozkoak, politikoak ...)

- Zailtasunak daude kuantifikatzeko
- Horrela, konplexuagoak dira konpontzeko

2) Erabilitako bitartekoen / bideen arabera

- Gatazka baketsuak:

Bide ekonomikoak, politikoak, juridikoak, kulturalak, diplomatikoak ...

Aurkariaren galerak sortzea bilatzen da (indarkeria fisikoa ez den arren, bestelako indarkeriatzat jo genezake: biolentzia instituzionala kasu*)

- Indarkeriazko gatazkak

Biolentziaren erabilera (ondorio suntsitzaileak sortzeko boterea; giza mailan edo materialak)

- Ez belikoak (matxinadak, kolpe militarrek, esku-hartzeak, terrorismoa)
- Belikoak (gerrak)

3) Aktore edo aldeen izaeraren arabera

- Estatu arteko gatazkak:

Estatuko entitate subiranoen artean.

- Gatazka transnazionalak:

Estatuz kanpoko aktoreen eta Estatu artean: enpresa transnazionalak (Kuban, United Fruit Company), Erakunde Politiko Militar transnazionalak (DAESH).

Era berean hemen koka genitzake estatuz kanpoko aktoreak baitan hartzen dituen nolabaiteko Gerra Zibilak. Irizpidea, estatuz kanpoko aktoreak izatea baita. Beraz, Euskal Herrian garatu den gatazka hemen koka genezake.

- Gatazka supranazionalak:

Botere supranazionalak dituzten entitateen artean. Gobernu aktore supranazionalak dira, nazioarteko erakundeak: OTAN, ONU/NBE, UE/EB ...

4) Gatazkaren irismenaren arabera

- Bi aldeko gatazka

Bi aktore internazionalen artean.

- Gatazka aldeaniztuna

Aktore askotarikoen artean.

- Eskualdekoak:

Munduko alde zehatz batean.

- Mundukoak

Aktore gehienetara iristen dituzte munduko alde anitzetan.

4. GERRAREN DEFINIZIOAK

“Nazioen familiaren kideei eragiten dieten etsaitasun oro, nazioartekoak, zibilak, kolonialak edo inperialak direnak, eta zentzu juridikoan gerra-egoera gisa aitortuak direnak, edo 50.000 tropa kide mobilizatzea suposatzen dutelako” – Definizio tradizionala, 1942

“Nazioarteko gerra bat gatazka militar bat da entitate nazionalen artean, non horietako bat gutxienez Estatu bat den, eta gutxienez mila hildako eragiten dituen pertsonal militarrean” – 1972

“Gatazka armatu oro, non gobernu indar militarrek eta/edo era militarrean antolatuta dauden oposizioko indarrek esku hartzen duten, fabrikatutako armamentuaren erabilerarekin eta borrokan 1.000 hildako edo gehiagorekin” – SIPRI

“Gerra gatazka baten adierazpenik handiena da, non mota guztietako biolentzia baliatzen den mugarik gabe eta etsaia menderatzea edo bere suntsipen fisikoa argi bilatzen den” – 2001

Definizio hauek adierazten dute Gerra kontzeptua bera nola aldatu den urteetan zehar.

5. EGUNGO GATAZKA ARMATUEN EZAUGARRIAK. GERRA BERRIAK, GIZA SEGURTASUNA ETA ESKU-HARTZE HUMANITARIOAK.

- **Ez dute eredu klasikoa jarraitzen:**

Estatuen arteko gerra, gerra deklarazio ofiziala, ohiko tropak ...

- **Gerra dagoeneko ez da Estatuen pribilegioa:**

Biolentzia legitimoaren monopolioa dagoeneko ez da estatuarena.

- **Nazioarteko irismena hartzen duten GERRA ZIBILAK daude:**

Motibazioak:

- Lurraldea
- Independentziaren aldeko aldarrikapena (Yugoslavia)

- Gobernuaren kontrako borroka
- Injustizia soziala eta ekonomikoa
- Jarrera politikoa
- Arazo etnikoak eta erlijiozkoak

Alde askoren esku hartzea:

- Ohiko tropak
- Ez ohiko tropak, erakunde armatuak ...

Nazioarteko irismena, atzerriko esku-hartzearekin:

- Zuzena (indar militarrek)
- Ez zuzena (armak, aholkularitza, finantzazioa ...)

Kalteak gizarte zibilean:

- Zauri eta hildako asko, lekualdatzeak, erbesteratuak, batzuetan genozidioak (Ruanda, etniko), goseteak, emakumeen kontrako indarkeria
- Biktimen %90 zibilak

Nazioarteko bake-prozesuen garrantzia, negoziazioak, nazioarteko bitartekaritza, prebentzioa ...

Teorizazioa: “ GUDA BERRIAK” (M. Kaldor) vs. Gerra Zaharrak:

- Ordura arte “guda txikiak”, “barne gatazkak”
- Estatu arteko gerrak vs. gerra berriak (edo zibilak)
- Estatuen baitan, baita estatuz gaindiko aktoreek parte hartzen dute
- Kalterik larrienak populazio zibilean (hildakoen %90)
- Lurraldetasunaren aldean politika identitario, etniko edo erlijiosoak kausa nagusi
- Gudaren ekonomia globalizatuaren bitartez finantzatuak (gura helburua da, ez bitartekoa)

Teorizazio hau Yugoslaviako gerra adibidetzat hartuta abiatu zen.


6. EGUNGO GATAZKEN MAPAK

Gatazka armatuak 1990' (*Le Monde Diplomatique*)



Stockholm International Peace Research Institute (SIPRI), Yearbook 2013

CIFRAS DE LOS CONFLICTOS ARMADOS, 2002-11



CIDOB Fundazioaren Nazioarteko Urtekaria:

Gatazkak mundu-mailan erakusten ditu: gerrak, baita gatazka eta biolentziaren bestelako adierazpenak ere

- Estatu-kolpeak
- Errepresioa
- Liskar etnikoak edo erlijiozkoak, gutxiengoen egoera ...
- Estalita dauden gatazkek ...

Gatazken tipologia:




Conflict Barometer 2014 (Nazioarteko Gatazkel buruzko Ikerketarako Institutua, Heidelberg)


GLOBAL CONFLICTS OF LOW, MEDIUM AND HIGH INTENSITY 1945 TO 2012




GLOBAL CONFLICT INTENSITIES IN 2014
COMPARED TO 2013



INTRA- AND INTERSTATE CONFLICTS OF HIGH INTENSITY
1945 TO 2012



DISTRIBUTION OF ALL CONFLICTS IN 2012
BY REGION AND INTENSITY TYPE



11.gaia:

NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA NAZIOARTEKO ERREGIMENAK

1. NAZIOARTEKO LANKIDETZA. DEFINIZIOA ETA OINARRI TEORIKOAK.

Nazioarteko Lankidetzaren

Nazioarteko sistemaren aktoreen arteko interakzio nagusietatik bat da.

Gerra	Gatazka Interes bateraezinak	Lankidetzaren Interes koordinazioa	Integrazioa
--------------	--	--	--------------------

Nazioarteko lankidetzaren aktore internazionalen arteko harreman oro, elkarren arteko interesak edo eskakizunak asetzera bideratzen dena, bakoitzak beren botere propioak modu osagarrian erabiliz jokabide koordinatuen edo solidarioen garapenean.

Oinarriak:

- 1) Interesak, baloreak edo helburuak bat egiten direla hautematea (bi aldeek aldi berean lortu, sustatu eta ase ahal dituztenak)
- 2) Alde bakoitzak ulertzen du bestearen jardueraren bere helburu propioak lortzeko, bere buruaren interesak edo baloreak lortzen ere laguntzen duela
- 3) Adostasuna/akordioa existitzea aktoreen arteko transakzioen oinarritzko alderdien inguruan
- 4) Akordioa betetzeko izango diren transakzioak / ekintzak / harremanak kudeatzeko arauak ezartzea.
- 5) Transakzioak / ekintzak / harremanak garatzea akordioa betetzeko.



Nazioarteko erakundearen garrantzia lankidetzaren prozesuetan
(eskola idealista / liberala)

Aintzat hartzekoa, ADI:

Nazioarteko lankidetzaren ez du nahitaez adierazten bidezko harremanak daudela:

Nazioarteko lankidetzaren \neq Bidezko lankidetzaren

Bidezkoa izan dadin, beharrezkoak dira:

- Antzeko boterea
- Bidezko helburuak
- Nolabaiteko oreka ekarpen eta ordainen artean

Ikuspegi juridiko batetik lankidetzan jarduteko beharra:

Nazioarteko Zuzenbidearen Printzipioak zehazten duen Deklarazioa Estatuaren arteko Adiskidetasun eta Lankidetzaren harremanen inguruan:

Estatuen elkarrekin lan egiteko beharra daukate, nahiz eta ezberdintasunak egon euren sistema politiko, ekonomiko eta sozialetan, nazioarteko harremanen eremu anitzetan, bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzeko, eta mundu-ekonomiaren egonkortasuna eta aurrerapena sustatzeko.

2. LAKIDETZAREN ONURAK ETA AGENDA GLOBALAREN ARAZOAK.

Kooperazioa beharrezkoa da eremu askotan:

Maila tekniko eta administratiboan elkarlan minimoa

- Hegazkin arauak, itsas garraioa, ibaiko nabigazioa, txertaketarako irizpideak, posta trukea, ikerketa zientifikoa ...

Krisi egoerak, gatazkak eta gerrei aurre egiteko

- Negoziazioak bideratzea eta gatazkak konpontzea, nazioarteko bitartekaritza, prebentzioa ...

Agenda globalaren arazoak:

- Baliabide naturalak agortzea
- Ingurumena babestea
- Migrazio fluxuen kontrola
- Giza garapenaren ezberdintasunak
- Alde sozialak
- Gosea eta desnutrizioa
- Populazioen oinarritzko premiak asetzea
- Giza eskubideak eta eskubide kolektiboak errespetatzea
- Gaixotasun nagusiak
- Leku komunaren erabilera kudeatzea
- ...

Lankidetzaren laguntzen duten baldintzak:

- 1) Aldeen artean antzeko edo osagarritzko interesak edota beharrak egotea
- 2) Aldeen artean etekinak, kostuak eta arriskuak modu zuzen batean banatzea
- 3) Alde bakoitzak bestearengana konfiantza izatea beren konpromisoak eta betebeharrak bete egingo dituela
- 4) Interakzioak elkarrekotasunarekin eta elkarren arteko konfiantzarekin gauzatzea

3. NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN TIPOLOGIAK.

Hiru irizpideren arabera: {

- 1) Instituzionalizazio maila
- 2) Eremu edo materia
- 3) Aktoreen kopuru edo izaera

1) Instituzionalizazio maila

1) Lankidetza informala	Kolaborazio dinamika, baina estruktura organikoa sortu barik ("informal" EZ du esan nahi desantolatuta) - Herrialde batzuek jarrera komuna hartzen dute nazioarteko foro batean - Estatu edo gobernuburuaren bilerak erabiliz
2) Lankidetza formala edo organikoa (estruktura organikoa duena)	Itun bat sinatuz, Nazioarteko Erakunde bat sortuz, edo arau komunak onartzuz - EB eta AKP (Afrika, Karibe eta Pazifikoko herrialdeak) arteko Ituna - Espainia-Mexiko Kooperazio Ituna - Karibeko Estatuaren Elkarte

2) Eremu edo materia

1) Lankidetza politikoa	Afer politikoetan elkarlana, kontsulta diplomatikoak, jarrera politiko komunak hartzea... - Bi estatuen arteko Lankidetza Ituna - Estatu eta gobernuburuaren artean ohiko bilerak - Europako Segurtasun eta Lankidetza Konferentziako Azken Akta (Helsinki)
2) Lankidetza ekonomikoa	Akordioak eta elkarlana arlo ekonomikoan, merkataritza eta finantza... - EB – AKP herrialdeen arteko itunak - Munduko Merkataritza Elkartearen sinatutako merkataritza arauak - Nazioarteko Diru Funtza eta Estatu baten arteko ituna

3) Lankidetza teknikoa	Lankidetza arlo zehatzetan: ikerketa, ingurumena, hezkuntza, turismo, kultura, uraren erabilpena, arrantza, polizia, militarra, garapenerako lankidetza... - Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazioarteko Hitzarmena - Itsasoko Salbamenduaren Nazioarteko Hitzarmena - Polizia-Kriminalaren Nazioarteko Erakundea (INTERPOL)
4) Lankidetza orokorra	Elkarlaneko arlo ezberdinak lotzen direnean - Europako Kontseiluaren Jarduerak - Espainia-Mexiko Lankidetza eta Adiskidetasun Ituna

3) Aktoreen kopuru edo izaera

1) Aktoreen kopurua	1) Bi aldeko lankidetza Bi alde edo aktoreen artean - AEB-Errusia SALT Itunak (Arma Estrategikoak Mugatzeko) - Euskadi-Akitania herrialde mugakideen arteko lankidetza 2) Lankidetza aldeaniztuna Hiru edo alde gehiagoren artean - Arma Nuklearrak Mugatzeko Ituna (NPT) - Kutsaduraren kontra Mediterraneo Babesteko Hitzarmena
----------------------------	--

<p>2) Izaera edo aktore mota</p>	<p>1) Estatuarteko lankidetzaren artean - Espainia-Maroko Ituna</p> <p>2) Erakundeartekoa edo supraestatala Nazioarteko Erakundearen artean - NATO/EB Ituna indar militarrek erabiltzeko - EB/MERCOSUR-Lankidetzaren Akordioa</p> <p>3) Lankidetzaren transnazionala GKEen, multinazionalen, presio taldeen artean... -Zorra eta Garapenera buruzko Europar Sarea (EURODAD): GKEen sare bat Hirugarren Munduko kanpo-zoraren inguruan - Industrialen Europako Mahai-ingurua: Europar industria enpresen <i>lobby</i>-a</p>
---	--

<p>... 2) Izaera edo aktore mota</p>	<p>4) Gobernu EZ Zentralen lankidetzaren (edo Eskualdeartekoa) GEZen artean (eskualdeak, Autonomia Erkidegoak, <i>länderak</i>...) - Katalunia/Quebec Ituna - Europar Eskualdeen Asanblea (ARE)</p> <p>5) Lankidetzaren konbinatua Izaera ezberdinen aktoreen artean (Estatuak, NE, GEZ, multinazionalak, GKE ...) - EB/Txile Elkartze Akordioa - Euskadi eta Kubaren arteko Lankidetzaren Protokoloa</p>
--	---

4. NAZIOARTEKO ERREGIMENAK.

Definizioak:

“Interdependentziako harremanak zehazten dituzten gobernu-akordio multzoak” (1977)

“Printzipio multzoak, arauak eta erabaki prozedurak non elkartzen diren aktoreen itzaropenak nazioarteko harremanen arlo jakin batean” (1983)

Adibideak:

- Nazioarteko moneta erregimena
 - > Bretton Woods Sistema
 - >>> Nazioarteko Diru Funtza
- Ingurumena:
 - > Kyoto Protokoloa, Pariseko Ituna...
 - >>> Nazio Batuen Ingurumen Programa
- Emakumeen giza eskubideak:
 - > Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Hitzarmena (CEDAW), Istanbuleko Hitzarmena...
 - >>> UN WOMEN
- Nazioarteko merkataritza:
 - > Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra (GATT)
 - >>> Mundu Merkataritza Erakundea (MME)